

# MILURTEKORAKO HELBURUAK

gosearen eta pobreziaren aurka | guztioK eskolara joateko aukera izan dezagun | emakumearen berdintasunaren alde | haurren heriotza-tasaren aurka | ama direnen osasunaren alde | hies-a, malaria eta tuberkulosiaren aurka | ingurugiroa defendatzearen alde | herrien arteko elkarhaketaren alde

**UGT:** General de Trabajadores y Trabajadoras. Langileen Elkarte. Estatu espainiarreko erakunde sindikala da. Ehun urtetik gora ditu eta bere helburua, langileen eskubideen alde modu aurrerakoian eta justuan lan egitea da.

**FETE:** UGTko irakaskuntzako langileen federazioa da. Gizartearen zerbitzuaren alde lan egiteko, berdintasunean, elkartasunean eta askatasunean oinarritutako irakaskuntza publikoa eta laikoaren alde dihardu lanean.

**ISCOD:** UGTko Garapenerako Elkarkidetzarako Instituto Sindikala da, gobernuz kanpoko erakundea da. Garapenean dauden herrien arteko elkarkidetzara sindikalaren alde egiten du lana. Erakundearen helburuak hauek dira: Batetik, giza egoera larrienean dauden gizaki eta herrialdeen aurrerapen ekonomikoa, teknikoa eta kulturala bultzatzea eta gizartearen aurrerapena bultzatzea batetik. Bestetik, garapenean dauden herrialdeetako erakunde sindikalen garapena lortzea eta sindikatuen arteko mugimendu aske eta demokratikoa lortzea.

**IE:** Hezkuntzaren nazioartekoa da. Irakaskuntzako langileen mundu mailako erakunde sindikala da. FETE-UGTk presentzia duen 165 herrialdeetako 343 sindikatuk hartzen dute parte eta sindikatu hauek irakaskuntza arloko 29 milioi langile ordezkaten dituzte.

**AECI:** Estatu espainiarreko nazioarteko elkarkidetzarako agentzia da. SECI, hau da, Elkarkidetzarako Nazioarteko Estatu Idazkaritzaren bidez, elkarkidetzara eta kanpo ministeritzara atxikitutako erakunde autonomoa da. Bere helburuak ondorengoak dira: Garapenean dauden herrialdeen aurrerapen ekonomikoa bultzatzea; gizarte aurrerapena, aurrerapen kulturala, erakundeen arteko aurrerapena eta aurrerapen politikoa bultzatzea eta herrialde hauen arteko elkarkidetzara kulturala eta zientifikoa indartzea. Honetaz gain, garapenerako politikaren elkarkidetzara bermatzeko lanean dihardu europar batasunean.

Egitasmoaren zuzendaritza: FETE-UGTko prestakuntzarako idazkaritza. Elvira Novell  
FETE-UGTko Gizarte politikarako idazkaritza. Carmen Veites  
ISCOD. Maite Núñez

Talde koordinatzailea: ISCOD. Ana Torres  
FETE-UGT. Luz Martínez Ten

Laguntzaileak: FETE-UGTko Gizarte politikarako idazkaritza.. Jonatán Pozo  
FETE-UGTko prestakuntzarako idazkaritza. Mar Rodríguez  
FETE-UGTko prestakuntzarako idazkaritza Daniel Cantero

Testuak, dokumentazio lanak, elkarrizketak eta informazioaren bilaketa lanak José Escudero Pérezek egin ditu. Kultur animatzailea, idazlea eta musikaria da bera.

*Graffitiari* buruzko argazki erreportaia eta Milurtekoari buruzko argazkiak Javier Rodríguezek egin ditu.

Argazkietarako protagonista moduan eta *graffitia* egiteko lanetan parte hartu dute: Pablo Gómez Gómezek, Lady Vanessa Díaz Sánchezek, Yeon-Ha Kimek, Alexandra Andriucek, Ángela Rodríguez Calvok, Sergio Oyola Ariasek, Antony Jack Silva Titok eta Iris Pérez Diezek.

Edizio dijitala eta web orria: PROSA, Montserrat Boix eta Lola Pérez Carracedo.

[www.educacionenvalores.org/objetivosdelmilenio](http://www.educacionenvalores.org/objetivosdelmilenio)  
[objetivosdelmilenio@educacionenvalores.org](mailto:objetivosdelmilenio@educacionenvalores.org)

Diseinua eta maketazioa:  
Cyan, Proyectos y Producciones Editoriales, S.A.

Gida hau, munduko auzo eta herrietan, gutxien dutenen alde lan egiten diharduten guztieei dago zuzendua. Laguntzen duten gizonezkoei zein emakumezkoei, bai adinez edota espirituz gazte diren bolondresei eta gehienetan erabat ezezagunak diren heroiei dago zuzendua.

Giza lanetan diharduten lankideei eskerrak eman nahi dizkiegu. Gizakien berdintasunaren alde eta giza-eskubideen alde munduan zehar egiten diren horrenbeste ekimen txiki eta handiren berri eman digutelako.



# Índice

Aurkezpena . . . . .	7
Hamar erantzunlabur Milurtekorako hrlburuei buruz egindako oinarritzko galderai . . . . .	9
<b>LEHENENGO HELBURUA.</b> Muturreko txirotasuna eta gosearekin bukatzea . . . . .	17
<b>BIGARREN HELBURUA.</b> Lehen hezkuntza unibertsala cortezea . . . . .	27
<b>HIRUGARREN HELBURUA.</b> Sexuen arteko berdintasuna lortzea eta emakumearen autonomia bultzatzea . . . . .	35
<b>LAUGARREN HELBURUA.</b> Haurren heriotza-tasa gutxitzea . . . . .	43
<b>BOSGARREN HELBURUA.</b> Ama direnen osasuna hotetzea . . . . .	51
<b>SEIGARREN HELBURUA.</b> Hiesa, malaria eta beste zenbait gaixotasun eragotzi . . . . .	59
<b>ZAZPIGARREN HELBURUA.</b> Ingurugiro jasangarria lortzea . . . . .	67
<b>ZORTZIGARREN HELBURUA.</b> Mundu mailako garapenerako lankidetza bultzatzea . . . . .	75
Milurtekorako helburuei buruzko informazio gehiago . . . . .	83
Zure ekarpenak (Edo “Zure esperientzia”) . . . . .	87



# Aurkezpena

MILURTEKO BERRIAREN ATARIAN gizartean erabateko berdintasuna eta justizia lortzeko erronka dugu. Ezagutzaren alor guztietan, zientzian, teknologian eta kulturaren aurrerapen asko lortu badira ere, oraindik ere gizaki askok gosea, pobrezia eta hezkuntza falta pairatzen dute. Egoera larri honetan dauden gehienak gainera, emakumezkoak eta haurrak dira. Hala ere, eta egin beharreko lana nekeza eta handia den arren, mundu mailako milaka pertsonak dihardute lanean gizakiaren erabateko duintasuna lortu ahal izateko.

Milurtekorako helburuek agerian utzi dute gizakiok gizarteko arazoak konpondu ahal izateko elkarlanean lan egiteko gauza garela. Adin eta gizarte maila guztietako emakumezko eta gizonezko askok, gizarteak pairatzen dituen arazo larriak konpontzeko lanean dihardu. Lanean diharduten guzti hauek orain bizi dugun baino mundu hobea lortzea posiblea dela uste dute eta horretan dihardute lanean. Gizaki guztiak gara munduko arazoaren erantzuleak. Munduko edozein leku, toki oso txikia izanik ere, lanerako, elkarkidetzarako eta justiziaren alde lan egiteko leku aproposa dela badaite lanean dihardutenek.

2015 Plataformak martxan jarri dituen ekintzen moduko ekintzek, ezarritako helburuak lortzea posiblea dela egiaztatzen digute. Ez dugu besteek zer egingo duten zain geratu behar, guk egin behar dugu lana. Guk lagundu behar dugu, ezagutu, jakin, entzun, lan egin. Edozein ekintza, txikia izanik ere, garrantzitsua izan daiteke. Gure herritik mila kilometrotara gertatzen diren arazoak gure arazoak dira eta guk egiten ditugunak eragina dute gugandik milaka kilometrotara. Globalki pentsatzea eta tokian tokian lanean aritzea ez bakarrik gizabanakoaren betebeharrak etikoa, gizarte osoaren ardura eta betebeharrak etikoa era bada.

Gida hau mundu hobea posiblea dela sinisten duten pertsonen egindako omenaldia da. Aldi berean, Milurtekorako helburuen egitasmo handi honetan parte har dezaketen gonbitea ere bada. Itxaropenerako eta konpromezurako gida da hau. Irakurritakoan pentsa ezazu munduan ez gaudela bakarrik. Orainxe bertan planetaren tokian tokian batzuen zuhaitzaren bat landatzen ari denik badela, ideien bat pentsatu eta garatzen

ari denik ere badela, injustiziaren baten aurka lanean diharduenik ere badela, bake-aren bila dabilenik ere badela, gaixotasunaren aurka lanean dihardutenik ere badela, haurren bat hezitzen dagoenik ere badela....

Gida hau irakurritakoan irten zaitez kalera eta lan egin. Mundua aldatu dezakegu. Milurtekorako helburuak lortu ditzazkegu..

*Maite Núñez, ISCODeko Zuzendaria*  
*Carlos Cortiñas, FETE-UGTko Idazkaria*



# Hamar erantzun labur Milurtekorako helburuei buruz egindako oinarritzko galderei

Begira, bizitzan ez dago konponbiderik, honen ordez, indarrak daude lanean. Zoragarria da indar hauek sortzea eta orduan, indarrak sortu direnean, konponbideak berez datoz.

A. De Saint-Exupery


Ez zaitez geldirik geratu  
bide ertzean  
ez ezazu izoztu poza  
ez ezazu gogorik gabe maitatu  
... ez ezazu gorde mundutik  
txoko lasai bat bakarrik.

Mario Benedetti

## 1. Zer dira Milurtekorako helburuak?

Milurtekorako helburuak, Nazio Batuek bultzatuta 2000.urtean 189 herrialdek egindako ituna da. Herrialde hauek mundu mailako txirotasuna gutxitu eta pobrezia hau sortzen duten arrazoiak konpontzeko ahaleginean orain artekoa baino lan handiagoa egiteko konpromezua onartu zuten. Milurtekorako deklarazioak edo itunak, gizarteak mende berriaren hasieran dituen arazorik eta erronkarik nagusienak aztertu ditu. Hauek dira:

- Gosearekin eta pobreziarekin bukatzea (1. helburua).
- Lehen hezkuntza unibertsala lortzea (2. helburua).
- Genero desberdintasunak konpontzea (3. helburua).
- Haurren heriotza-tasa gutxitzea (4. helburua).



- Ama direnen osasuna hobetzea (5. helburua).
- Hies-a, malaria eta beste zenbait gaixotasunei aurre egitea (6. helburua).
- Ingurugiro jasangarria bermatzea (7. helburua).
- Mundu mailako lankidetzeta indartuko duen nazioarteko elkarteak sortzea (8. helburua).

Egitasmo honetan parte hartzen duten gobernuak gizarteko arazoak erdira murriztea jarri zuten helburutzat. Helburu hau lortzeko garatutako herrialdeak zein garatugabe-koak aritu beharko dira lanean. Baliabide gehien duten herrialdeek Laguntza Ofizialaren bidez, garatugabe herrialdeei lagundu beharko die modu desberdinetara: zergak barkatuz, mundu mailako merkataritzarako neurriak hartuz, oinarritzko sendagaiak izateko aukera erretuz edota teknologiaren erabilera bultzatuz. Garapenean dauden herrialdeek beren herriek dituzten mugak gainditu ahal izateko zenbait politika jarri beharko dituzte martxan. Hala nola, maila txikiko nekazariei laguntza eskaintzea, ezpiegiturak bultzatzea, giza-eskubideak bermatzea edota ingurugiro jasangarria bultzatzea.

## 2. Zergatik sortu zen Milurtekorako helburuak sortzeko beharra?

2000. urtean Nazio Batuak erakundeak, nazioarteko giza-eskubideen alde eta munduko gizakien arteko desberdintasunak desagertzearen alde lan egiten duten zenbait elkarte, erakunde eta gizate mugimenduren presiopean sortu zuen egitasmoa.

XX. mendeko azken hamarkadetan agerian geratu zen gizakiak dituen arazorik larrienek, mundu mailako erantzuna izan behar zutela. Herrialdeek ezin dute beraien kasa lanean aritu, antolatutako elkarbidetza behar da ekimenek aurrera egin dezaten. Munduko edozein tokian gertatzen dena guztion ardura da.

Eta oso garrantzitsua dena. Mundu mailako adituek diotenez, helburu hauek lortu ahal izateko nahikoa baliabide badago munduan. Planteatutako helburuak beraz, errealistak dira, betetzeko modukoak.

### 3. Zerbait aurreratu al da helburu hauek itundu zirenetik?

Aurrerapen batzuk lortu izan dira. Aipagarriak dira batetik, lehen hezkuntzan eman den matrikulazio kopuruaren igorera (2. helburua) eta bestetik, emakumearen eskubideen defentsan emandako aurrerapenak (3. helburua). Bestalde, ingurugiroari dagokionez ere aurreratu da eta gaur egun badaude mundu mailako konpromezuak. Bukatzeko, baliabiderik ez duten herrialdeetan Hiesaren tratamendua errezteko protokoloaren bila dabiltzala aipatu behar da. Baina orain arte emandako aurrerapenak oso motelak izan dira hala ere, eta zaila izango da 2015. urterako zehaztuta dauden helburuak bete ahal izatea.

2005. urteko bukaera aldera, mundu mailan giza-eskubideengan eragina duten arazo larri hauek konpontzeko jarritako epearen herena bete eta gero, gutxi aurreratu dela esan daiteke, nahiz eta lortu izan diren helburu batzuk oso garrantzitsuak izan. Herrialde guztiek garapen maila desberdina dutela kontutan izanda, herrialde bakoitzak maila desberdinak izango ditu helburu bera lortzeko. Aurrerapen moduan aipagarria da herrialde pobre askotan eskolaratze mailaren kopuruak gora egin duela. Hala ere, zenbait herrialdeetan atzera pausoak eman dira. Afrika Subsahariarra da adibiderik nabarmenena. Herri honek oso egoera larria bizi du. Munduko zenbait herrialdeetan biztanleen bizi-itzaropena 33 urtera jeitsi da, elikagai faltak eta Hies-ak eraginda. Paleolito garaian, orain dela 15.000 urte, ehiza eta fruitu bilketa garaian, bizi-itzaropena egun, herrialde hauetan dena baino luzeagoa zen.

### 4. GobernuaK nahikoa egiten ari al dira Milurtekorako helburuaK lortu ahal izateko?

Ahalegin gehiago egitea beharrezkoa da. Gobernuek sarritan, botere ekonomikoa, hazkunde ekonomikoa eta irabazi ekonomikoak gizakien arazoan gainetik jarri dituzte. Nahikoa ilogikoa den logika jarraitzen dute. Herrialde askok Milurtekorako helburuen ituna sinatu badute ere, gizakiaren duintasunaren gainetik neurririk eta mugarik gabeko hazkunde ekonomikoari ematen diote lehentasuna.

Duela hamarkada asko jakin badakigu, lurraK eskaintzen dituen baliabideak agortu egin daitezkeela. Gure belaunaldiak gure planeta eta ingurugiroa zaintzeko

erantzunkizuna du. Ezin ditugu datozen belaunaldiak ahaztu eta hauei erabat hondatutako ingurugiroa utzi.

Goseari eta izurriteei dagokienez, hauek gainditzeko badugu nahikoa informazio eta baliabide, baina agintariek mundu mailako botika industriari eta interes ekonomikoiei ematen die lehentasuna pobreei zuzendutako osasun publikoa baztertuz.

## 5. Orduan, zertarako balio dute Milurtekorako helburuek?

Lehenengo eta behin jakin gobernuek 2015. urterako mundu mailako arazoak konpondu ahal izateko hartutako konpromezuak direla helburu hauek. Gobernuek mundu mailako gosea, muturrerainoko txirotasuna eta gizartean eragina duten beste zenbait gaitza 2015. urterako derrigorrez konpontzeko konpromezua hartu dute. Hiritar, gizaki garen neurrian, eskubideak ditugu, berez, jaitzez ditugun eskubideak dira, inork eman ez dizkigunak, gizaki izanagatik ditugunak. Eskubide hauetaz baliztatuz, herri administrazioei, udaletxeei, autonomia erkidegoei, estatu eta Europa mailako erakunde-  
ei itundutako arauak bete araztea eskatu diezaiekegu. Aldi berean, sinatutako helburuak aurrera atera ahal izateko zer egiten ari diren azaltzea eskatu diezaiekegu. Milurtekorako helburuak, aurretik esan bezala, munduan ditugun baliabideak erabiliz bete daitezkeen erronkak dira.

Bigarrenik, Milurtekorako helburuak, munduan giza-eskubideak bete ahal izateko lanean diharduen jende askoren lana antolatu eta biltzeko modu bat dira. Mundu guztian daude Milurtekorako helburuak lortu ahal izateko lanean diharduten gizabanakakoak, erakundeak eta taldeak. Beraien lan egiteko modua azaldu edota antolatutako ekimenei buruzko informazioa ematen duten taldeak dira. Arazoak konpondu ahal izateko oso baliagarria da ahalik eta iritzi gehien jasotzea. Gida honen helburua hori ere bada, zuen iritzia eta esperientzien berri jasotzea. Zuk zeuk, ahal duzun neurrian, lagundu dezakezu. Ekimenei buruzko informazioa ematen, dituzun ideiak azaltzen...

## 6. Milurtekorako helburuak zalantzan jarri daitezke?


Bai noski. Planteatu ziren unetik beretik zenbait adituk helburu hauek herrialde aberatsenen beharrak jasotzen ez dituztela kritikatu izan dute. Helburuak jarraituz, herri aberatsek beren aberastasun maila galtzen dute herri pobreen mesedetan. Milurtekorako helburuen asmoa herrialde guztiek gutxiengo maila lortu dezatela da. Herri pobreen alde aurrerapenak lortzea da asmoa. Eta ez du inondik ere munduko aberastasunaren banaketa modua aldatu nahi. Ez du herri aberatsen kontra joan nahi.

Helburu batzuk azaltzeko modua ere kritikagarria izan daiteke. Dena den oso arazo larriak planteatzen direnez (gizaki guztiak jatekoa izan dezaten, gizaki guztiek izan dezatela hezkuntzarako edo osasunerako aukera, Hiesari aurre egin ahal izatea...) gutxiengo batzuk lortzea sekulako aurrerapena izango litzateke. Gogoratu, helburu hauen artean munduan ematen den gosearen arazoa ere bada goela eta munduko gosea konpontzeko ahaleginetan ari direla itunaren partaideak. Egun, munduko giza-kion heren batek sufritzen du gosea.

Gizarteak aurre egin behar dizkion erronka gehiago ere badaude iraungipen data behar dutenak. Hala nola askatasunaren eta demokraziaren indartzea, giza-eskubi-deen errespetua edota heriotza-zigorren erabateko desagerpena.

## 7. Zer ikusiadut nik Milurtekorako helburuekin?

Beharbada Milurtekorako helburu hauek zurekin zer ikusirik ez dutela pentsatuko duzu. Egoerak bere horretan jarraituko duela zuk egin deakezunagatik. Gida honetako atalak irakurri itzazu eta konturatuko zara gauza askok dutela zurekin zer ikusia. Eta zurekin ez badute, zure ikaskideren batekin, zure lagun edo auzokideren batekin, zuk baino gutxiago duen batekin, estatu espainiarra baino pobregoa den beste herrialderen batetik hona etorritakoekin edota ezer ez dutenekin. Konturatuko zara Hiesa, gosea, emakumeen desberdintasuna, ingurugiroaren hondamendia eta beste zenbait alorrek zer ikusi zuzena izan dezaketela zurekin. Zurekin edota zure ingurukoekin.



## 8. NiK zerbait egin dezaket?

Baietz uste dugu. Txinatar esaera zahar batek hala dio: “Mundua aldatzen hasi aurretik, zure etxe barrura begiratu ezazu”. Gure inguruan, ingurugiroaren alde, emakumeen eskubideen alde, gosearen aurka edo Hiesaren aurka lan egiteko toki asko ditugu.



Konpromezua hartzea falta zaigu. Bakoitzak ahal dugun neurrian noski. Arazo larrien aurrean, zenbait gobernuk eta botere handia duten gizaki askok egiten dutena egin dezakegu, beste aldera begiratu. Baina gure inguruan ere lan handia egin dezakegu, bakarka edo elkarteren bateko kide izanik. Egoera aldatzen lagundu dezakegu. Giza-eskubideak urratzen dituzten arazoan aurrean, gizabanakako askok, erakunde eta elkarteen bidez lan handia egiten dute. Egoerak

salatzen dituzte, aldaketarako lagungarri diren ekimenak antolatzen dituzte edota laguntzeko ekintza berriak proposatzen dituzte.

Ohikoa da tamaina honetako arazoan aurrean, guk geuk gauza gehiegirik egiterik ez dugula pentsatzeak. Gure lanak eragin txikia izango lukeela uste dugu eta gure saiakerak ez duela gehiegi balio. Guk argi dugu hau ez dela horrela. Gure ekimen txikiek, oso txikiak izanda ere, oso baliagarriak dira. Ekimen txiki askok ekimen handi bat sortzen baitute. Zenbait kasutan harrigarria izan daiteke pertsona gutxi batzuk bultzatutako ekintzak izan dezaken ohiartzuna. Ekologia munduan edota emakumeen eskubideen aldarrikapenean aritu diren gutxi batzuk ondorio pentsaezinak lortu dituzte.

## 9. Zer lortu nahi da argitalpen honekin?

Gida honen helburua ez da munduaren egoera aztertzeko adierazle estadistikoak ematea. Badira datu hauek jasotzen dituzten beste testu batzuk. Guk hauetako batzuen berri ere emango dugu.


Gida honek, esperientzia positiboak, askotan heroikoak direnak jaso nahi ditu. Milurtekorako helburuak lortu ahal izateko lanean diharduen zenbait pertsonen berri eman nahi du gidak. Izan ere, mundu honetan heroia den jende asko dago. Ezezagunak izanik, oso egoera larrian dauden gizaki askoren bizitza salbatu dutenak eta gizaki hauen bizi-egoera hobetzeko lanean aritu direnak eta dihardutenak. Gazte eta heldu asko dago munduko toki askotakoak, beraien inguruko elkartetan lanean jarri direnak mundu mailan ezagunak izatea merezi duten egitasmoak aurrera atera ahal izateko.

Argi utzi nahi dugu gida honek ez dituela esperientziarik onenak jasotzen. Gida hau lagin bat besterik ez da. Ezagutu ditugun ekimen batzuk jaso eta lanerako baliagarriak izan daitezkelakoan azaldu ditugu. Zorionez, asko dira mundu mailan Milurtekorako helburuak lortzeko dauden ekimenak. Ekimen hauek guztiak dira oso baliagarriak. Hemen adibide batzuk baino ez dira proposatzen.

Gida hau bi formatuetan aurkeztuko dugu. Idatzizkoan etga digitalean. Digitaleko helbidea honakoa da: [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org). Edizio digital honetan adibide gehiago dago eta adibide hauen arteko erlazioa ikustea errezagoa da. Gainera, estatu espainiarrean martxan jarritako adibide gehiagoren berri ematen du.

## 10. Nik ekarpenik egin dezaket gida honetan?

Bai. Gida hau zure auzoan, herrian, hirian, ikastetxean, institutoan, unibertistatean, lantokian... antolatu den edo zuk parte hartu duzun ekimenen baten berri eman diezaiguzun gonbitea da. Ekimen hau txikia izanik ere baliagarria izan daiteke beti. Gida hau ez dago itxita ISCOD-ek (Garapenerako elkarkidetzarako Instituto Sindikalak) eta UGT-k (Irakaskuntzako langileen sindikatoak) bultzatutako edizio digitala,



## **mundua aldatu dezakegu**

[www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org) berritzen joango da eta bertan, zure esperientzia jaso daiteke, zabalkundea izan dezan.

Gure ustez oso beharrezkoa da esperientzia txiki horiek jasotzea. Beti ere mundu horretan lanean diharduten edozein tokiko pertsonentzat oso baliagarriak izan daitezkeela iruditzen zaigulako.

Eskerrik asko aldeztatik zure laguntzagatik eta aurrera.



# Lehenengo HELBURUA

muturreko txirotasuna  
eta gosearekin  
butatzea

AMBIAR



Santa Clara itxi iezaiguzu,  
nahi baduzu zeruko atea,  
baina ireki iezaizkiguzu  
mesedez, mugetakoak.

Bidinteren letra, Guinea Bissauko  
musikaria; Mellako harresian hildakoen  
alde idatzitakoa, 2005, urtean





## 1. Aurkezpena

Milurtekorako lehenengo helburua muturreko pobrezia-ekin eta gosearekin bukatzea da.

Munduko herritarren heren batek gosea pairatzen du. Lotsagarria da XXI. mende hasieran gosea gizarteko arazorik larriena izaten jarraitzea. Munduko arazorik larrienak gosea eta pobrezia edo txirotasuna dira. Egun, gizateria osoa elikatzeko adina elikagai produzitzeko beharrezkoa den teknologia eta baliabideak izanik, justifika ezina da munduko herritarren herena gosea eta desnutrizioa pairatzen egotea.

Garbi dago gosea eta muturreko txirotasuna oso arazo larriak direla eta hauek konpondu ezean ez duela zentzurik izango gainontzeko helburuak betetzea.

## 2. Zeintzuk dira gosea eta muturreko pobrezia-aren arrazoiak?

-  Gosearen arrazoiak asko dira. Zenbait herrialdek arazo handiak dituzte landatzeko lurra izateko, ura lortzeko, banketxeetan maileguak lortzeko, mundu mailako merkatura irekitzeko edota lanerako beharrezkoa den teknologia egokia lortzeko. 80. hamarkada arte gosea elikagai faltarekin lotzen zen. Egun ordea, goseari aurre egin ahal izateko elikagaien banaketa egokia behar dela badakigu.
-  Gutxieneko sarrera ekonomikorik ez izateak pobrezia dakar. Gizarteriaren laurdena egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi da. Analfabetismoak, ur gabeziak, osasunerako aukerarik ezak ere pobrezia sortzen dute.



### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ Gosearen arazoa konpondu daiteke. Egun gizarte osoa elikatu ahal izateko adina elikai produzitzeko ahalmena dugu. 1970. urtetik hona, herri garatuetan hirukoiztu egin da elikagaien produkzioa eta dagoeneko hazkuntza demografikoaren gainetik jarri da.
- ▲ 1990. urteaz geroztik aurrerapen handiak eman dira mundu mailan gosea eta pobrezia ekiditeko. Hala nola, herrialde arabiarretan, Asian, Pazifikokoan, Latinoamerikan eta Cariben. Bada, hala ere, goseak gora egin duen herrialderik. Afrika Subsahariarra eta lehengo Erresuma Batuak adibidez.
- ▲ 1990ean, gizateriaren %71-ak zuen edangarria zen ura. 10 urte beranduagoa kopurua %78-ra igo zen.
- ▲ Pobreziak familia bere kargu duten emakumeengan eragin handiagoa du. Hau ekiditeko asmoz emakumeei zuzendutako ekimenak antolatuta dira. Mikromailegu sistema, kooperatiben sorrera, formazioa... antolatu dira.

#### ▼ Alarmak

- ▼ Lurrean bizi geran 6.000 milioi pertsonetatik, 4.500 milioi justuan iraun bizi dira. 2.000 milioiek gosea pasatzen dute egunero eta 850 milioi baino gehiagok ez du jatekorik, muturreko gosea jasaten ari dira. Munduko hiru pertsonetatik batek gosea pasatzen du egunero eta hirutik bi muturreko pobrezian bizi dira.
- ▼ Afrika Subsahariarrean %35-ak desnutrizioa du Asian eta Pazifikokoan desnutrizioa %20-tik gertu dago. Latinoamerikan eta Cariben desnutrizioa %10-ekoa da.
- ▼ Nekazal guneetan gosea pasatzen duen %75-a bizi da. Arazoa ez da elikagairik ez dagoela. Arazoa, pobrenek elikagairik ordaintzeko dirurik ez dutela da. Konponbidea elikagaien banaketa justuan dago. Mundu mailako zein herrialde barruko banaketan.
- ▼ Pobrezia ez da bakarrik garatu gabeko herrien arazoa. Garatutzat ditugun herrialdeetan ere, pobrezia eta klaseen arteko desberdintasun ugari dago.





Estatu Batuetan adibidez, herri garatua izanik, oinarritzko osasunerako gastuak ordaindu ezin dezaketen biztanleak daude.

## 4. Zer ari da egiten?



### Zenbait ekimen




**Pobrezia Zero / Pobreza Cero.** 2005eko otsailean Pobrezia Zero Kanpaina jarri zen martxan. Estatu espainiarreko CONGDE, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak eta Alianza española (gizarte erakundeak eta zenbait sindikatuk osatutako elkartea) erakundeak bultzatutako kanpaina da. Kanpaina honek estatu espainiarreko biztanleak altxatu nahi ditu agintariak giza arloan lan egin dezaten. Udal mailan, probintzia mailan erkidego edo estatu mailan antolatu da kanpaina. 100 herrialdetik gorako taldeak dabiltz pobrezia-aren aurka elkarlanean ("Dei globala pobrezia-aren aurka aritzeko". ([www.pobrezacero.org](http://www.pobrezacero.org)).





**Merkataritza justuaren inguruko ekimenak.** Herrialde askotako ekonomia bizpahiru produktoen baitan dago. Gehienetan lurra emandako lehengaiak izaten dira eta enpresa multinazionalak kontrolatzen dute bere ustiakuntza. Multinazional hauek gainera mundu mailako merkataritzaren kontrola dute. Ondorioz, tea edo kafea jasotzen lan egiten duten milaka langilek oso egoera kaskarretan dihardute lanean soldata oso bajuak irabaziz. Merkataritza justoko elkarteek elikagaiak eta artisauro produktuak nekazari eta artisauei erosten die zuzenean, bitartekaririk gabe. Enpresa handiek ordaintzen dutena baino garestiago erosten dituzte produktuak eta gero hegoaldeko erosleei saltzen diete merkataritza justoa edo elkartasunezko dendetarako. Merkataritza justoak produktua oinarritzko giza-arauak errespetatuz lortu direla bermatzen du. Gutxieneko soldata, lanerako oinarritzko arauak, haurren esku lanik ez erabiltzea edota ingurugiroa ez kaltetzea bermatzen du merkataritza justoak. Gaiari buruzko informazio gehiago: Coordinadora Estatal de Comercio Justo: [www.e-comerciojusto.org](http://www.e-comerciojusto.org).



## Mundu mailako zenbait adibide

 **Argentinako trukerako kooperatibak.** Las cooperativas de Trueque en Argentina. Azken urteetan Argentinan eman den krisi ekonomikoak maila sozial askoren pobretzea ekarri du. Erdi mailakoa zen jende asko pobrea bihurtu da, oinarrizko produktuak erosteko modurik gabe dago orain. Egoera honen aurrean trukea indartu egin da eta Argentinako ekonomiarako ezinbestekoa bihurtu da. Baina, zer da trukea? Ba, produktuak, lehengaiak, zerbitzuak aldatzea da. Trukatzea. Dirurik gabe batek beste bati berak soberan duena eman eta honek ordainean faltan duena jasotzea da. Trukea zuzena da, ez dago bitartekaririk. Multinazionalek ez dute honen kontra zer eginik. Tradizionalki nekazal munduan eman da trukea. Oraingo erronka trukea hiri guneetara zabaltzea da. ([www.trueque.org.ar](http://www.trueque.org.ar))

 **Muturreko pobrezia konpontzeko alternatibak eta aukerak.** Muturreko txirotasun egoeratan, antolatutako ekimenak ugariak eta desberdinak izan behar dute eraginkorrak izan daitezen. Nikaraguan, Leon departamentuan, nazioarteko lankidetzaren laguntzarekin lanean diharduen bertako programa batek, 13 nekazal guneetako 900 familia pobreziatik ateratzeko asmotan jarri da martxan. Egitasmoak alor zabal bat jasotzen du. Nekazal produktzioa bultzatzea, formazio teknikoa ematea, baliabide naturalen ustiakuntza hobetzea, ingurugiroa errespetatzea, garapen jasangarria bermatzea, herritarren antolaketa eta parte hartzea bultzatzea eta emakumeen parte hartzea indartzea du helburu. Instituto Sindical de Cooperación al Desarrollo (ISCOD) —UGT— ([www.ugt.es/iscod](http://www.ugt.es/iscod)).

 **Pobreziaaren aurkako borrokan teknologiaren ezarpena bultzatzea.** Teknologia ezin erabili izateak, gune pobreetako isolamendua areagotu egiten du. Teknologia faltak herrialdeen garapena ekidin dezake. Bangladeshen, Muhammad Yunnusek, Grameen Bank, pobreen bankuaren sortu zuen. 70. hamarkadan, mikromaileguak eskaini zizkien bertako pobreei. Modu honetara isolatuta dauden herri txikietara telefono mugikorra eta ordenagailua eramatea ahalbideratu zen. M. Yunnusen egitasmoak, errepi-derik gabe, bertara iristea nekeza den herrixketara, sare informatikoaren bidez egunero merkatuko informazioa jasotzeko modua ematen du. Nekazal produktuek egunean hartzen duten prezioa jakiteko aukera ematen die

bertako biztanleei eta modu honetara bitartekoek egin diezaieketen iruzurra ekiditen da. Zokoratuta, isolatuta dauden gizakien garapenaren alde, teknologiaren erabilpen zuzena egitean datza egitasmo honek. (Hernán Zin, *La libertad del compromiso*).

## 5. Zuh zer egin dezakezu?

- **Informatu zaitetz**, zure herrian, auzoan, probintzian, inguruan... pobreen alde lan egiten duen elkarterik ba ote dagoen jakin ezazu. Elkarte hauek gure inguruko gizakien alde edota munuduko beste edozein lurraldeetako pobreen alde aritu daitezke lanean. Ahal duzun neurrian elkarte hauetan lagundu ezazu.
- **Zure ikastetxean edo institutoan** gosearen eta pobreziaren aurkako kanpaina antolatu dezakezu irakasleekin eta delegatuekin hitz eginda. Ipui-nak idaztea proposatu dezakezu edo marrazkiak egitea, erakusketaren bat antolatzea, antzerki emanaldiren bat, ikastetxearen sarrerako atean kartelak jarri...
- **ONGDk antolatzen dituzten gosearen eta pobreziaren aurkako ekintzetan parte har ezazu.** ("Pobreza Cero") web orrian informazio gehiago bilatu dezakezu.
- **Jarri zaitetz zure herriko udal agintariekin harremanetan**, auzo elkarteekin, gaztelekuetako arduradunekin, kultur etxeetako teknikariekin eta pobreziaren aurkako kanpainen berri eman, beraiek ere informazio hau zabaltzen lagundu dezaten.
- **Jarri ezazu martxan "truke" sistema** zure auzoan bertan. Trukerako kooperatiba txiki bat sortzea ez da zaila. Lagun taldea handitu dezakezu kontsumismoan erori gabe eta dirua xahutu gabe. Behar ez dituzun gauzak trukean jarri, zuk egiten dakizun zerbait irakatsi besteren bati, gauzak eman...
- **Gutxiago kontsumitu ezazu.** Afrikako esplotazio kasua irakurri (*8. helburua*) eta honek gizakiengan suposatu dezakeenaz pentsa ezazu. Kontsumorako kulturari bizi gara eta erreflexio modura hau proposatzen dizugu: ordaindu badezakezu ere, zergatik ez duzu bitan pentsatzen telefono mugikor berria erosi aurretik?

## 6. Non informatu zaitezke lanean hasteko?

- ➔ **Alianza contra la Pobreza.** 2004. urtean sortu zen Brasilen. Estatu espainiarrean 400 elkarte eta gobernu kanpoko erakundek osatzen duten taldea da. Autonomia erkidego guztietan dago elkarrekin honetako talderen bat.
- ➔ **Pobrezia Zero / Pobreza Cero.** Garapenerako gobernu kanpoko koordinakundeak bultzatutako estatu espainiarreko kanpaina da. 2005. urtean sortu zen eta ekimen ugari parte hartuz lagundu daitezke ([www.pobrezacero.org](http://www.pobrezacero.org)).
- ➔ Pobreziarekin eta gosearekin bukatzeko lanean diharduten gobernu kanpoko erakunde asko dago. Gure aholkua lehenik eta behin zure herrian edo hirian lanean dihardutenak ezagutzea da. Plataforma 2015 y más taldeko partaideak honakoak dira:

- ACSUR Las Segovias ([www.acsur.org](http://www.acsur.org)).
- Arquitectos sin Fronteras ([www.asfes.org](http://www.asfes.org)).
- Comité Español de Ayuda al Refugiado ([www.cear.es](http://www.cear.es)).
- Fundación CEAR ([www.fundacioncear.org](http://www.fundacioncear.org)).
- Paz y Solidaridad ([www.ccoo.es/pazysolidaridad](http://www.ccoo.es/pazysolidaridad)).
- Cooperación ([www.fundacop.org](http://www.fundacop.org)).
- IEPALA ([www.iepala.es](http://www.iepala.es)).





- Instituto Sindical de Cooperación al Desarrollo (ISCOD) —UGT— ([www.ugt.es/iscod](http://www.ugt.es/iscod)).
- Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad ([www.mpdl.org](http://www.mpdl.org)).
- Solidaridad Internacional ([www.solidaridad.org](http://www.solidaridad.org)).
- Asamblea de Cooperación por la Paz ([www.acpp.com](http://www.acpp.com)).
- Economistas sin Fronteras ([www.ecosfron.org](http://www.ecosfron.org)).
- IPADE ([www.fundacion-ipade.org](http://www.fundacion-ipade.org)).
- Paz y Tercer Mundo-Mundu Bat ([www.ptmmundubat.org](http://www.ptmmundubat.org)).

## 7. Gehiago jakiteko

- @ *PNUD-en txostena: Los Objetivos de Desarrollo del Milenio: Progresos, reveses y desafíos —2005—* [www.educaciónenvalores.org](http://www.educaciónenvalores.org).
- @ Nazio Batuetako Milurterako helburuen kanpaina / Campaña de los Objetivos del Milenio de Naciones Unidas: [www.sinexcusas2015.org](http://www.sinexcusas2015.org).
- @ Pobrezia Zero / Pobreza Cero kanpainaren web orria: [www.pobrezacero.org](http://www.pobrezacero.org).
- @ *Revista Crítica*. Febrero 2005. Monográfico: *Radiografía del Hambre*. [www.revista-critica.com](http://www.revista-critica.com).
- @ [www.reasnet.com](http://www.reasnet.com) (Red de Economía Alternativa y Solidaria) Garapenerako gobernuz kanpoko 100 elkarteek osatzen duten sarea da. Elkartasunezko ekonomia ekimenetan eta ingurugiroaren errespetuaren alde lanean diharduen taldeak daude bertan.



# Bigarren HELBURUA

lehen hezkuntza  
unibertsala lortzea

AMBIAR



Hezkuntza, mundua aldatzeko erabili daitekeen armarik baliagarriena da.

Nelson Mandela

Hezkuntzarik gabe ezin izango dugu gu eta gure ingurua ez den beste inor edo ezer ulertu eta ezingo dugu mundu mailako elkardependentziaren errealitatea ulertu. Hezkuntzarik gabe ezingo dugu ulertu, beste arrazetako eta erlijiotako gizakiek gure amets eta itxaropen berberak dituztela. Hezkuntzarik gabe ezin izango ditugu onartu helburuen unibertsalitatea eta gizakion nahiak.

Kofi Annan, Nazio Batuetako Idazkari Nagusia





## 1. Aurkezpena

Munduko herri askotan haurren askolaratze maila igo egin da. Hala ere, oraindik ere lana egin beharko da eskolaratzea erabat unibertsala izan dadin

Hezkuntza ezak herrialde bateko ekonomian eta gizartean eragina du. Hezkuntza ezak, gizabanakoaren eta herrialde oso baten pobrezia dakar. Gizartearen zati handi bat analfabetoa den herrialde batean ezin da sistema demokratikoa ezarri eta ondorioz bertako biztanleak urratuak ikusiko dituzte beraien eskubide asko.

Matrikulazio kopuru baxua eta eskola garaiz aurretik uztea pobreziarekin zuzenean lotuta daude. Pobreziarekin bukatu ahal izateko ezinbestekoa da gizaki guztiok oinarritzko hezkuntza jasotzeko aukera izatea. Nesken eskolaratzea bultzatu beharra dago. Gizatean baztertze tasarik altuena eta eskola garaiz aurretik uztea emakumezkoen artean ematen da gehienbat.

## 2. Zeintzuk dira eskolaratze unibertsala lortzeko dauden arazorik nagusienak?

-  Haurrek lan egin beharra. Haur asko zerbitzari edo esklabuen pare dabiltz lanean. Eskolara joateko aukerarik gabe eta jolasteko aukerarik gabe daude. Haurrek lan egitea oso zabaldua dago zenbait herrialdeetan. Multinazional askok haurrak dituzte lanean. Datuen arabera 5 eta 17 urte bitarteko 246 milioi haur dabiltz oso egoera txarretan lanean. "Ropa limpia" mundu mailako kanpainak egoera salatzen du (8. helburua).
-  Gerrateak eta inmigrazioa ahulenen esplotaziorako arrazoiak dira: haurren hezkuntza ekidin eta haur hauek beraien familietatik baztertzea dakar honek.
-  Pobretuta dauden herrialdeetako aurrekontu baxuak, irakasleen kontratazioa oztopatu eta eskolak eman ahal izateko azpiegiturarik ez izatea eragiten du.
-  Haurrak pobrezia egoeren biktimak zuzenak dira. Askotan gaixotasun larri asko izaten dituzte, Hies-a... eta ura eta elikagai falta ere izaten dute. Esan beharrik ez dago bizitzeko oinarritzkoena falta denean, (ura, jana...) hezkuntza luxua dela.

### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ 90. hamarkadan lehen hezkuntzako matrikulazioa herrialde guzti-guztietan igo egin zen. Asian eta Pazifikoan, European, lehengo Erresuma Batuko herrialdeetan, Latinoamerikan eta Cariben. Toki hauetan guztietan haurren %90-a eskolan matrikulatua zegoen, Asian %79-a eta arabiar herrietan %77-a.


#### ▼ Alarmaak


- ▼ Haurren eskolaratzea oso poliki ari da gora egiten. Munduko bost haurretatik bat ez dago eskolan matrikulatua (114 milioi haur guztira). Egun, 100 milioi-tik gora haur ez doa eskolara. Hauetatik %60-a neskak dira.
- ▼ Afrika Subsahariarrean 90. hamarkadan eskolaratze tasa %30-ean igo bazen ere, matrikulazio tasa oso bajua da oraindik ere. %60-aren azpitik dago. Gainera, haur askok eskola garaia baino lehen uzten dute (3tik batek bakarrik bukatzen du lehen hezkuntza). Senegal, Mali, Togo edo Ruanda moduko herrietan aurrera egin da baina Namibia, Congon eta Tanzanian atzera pausoak eman dira matrikulazioan. Niger-en haurren %26-a bakarrik joaten da eskolara eta badaude modu honetako beste herrialde gehiago ere.
- ▼ Asian eta Pazifikoan, munduko gizateiraren kopururik handiena bizi den tokian, jeitsi egin da eskolara joaten diren haurren kopurua, batez ere Txina eta Filipinetan.
- ▼ Herrialde pobreetako hezkuntza sistemaren egoera txarraren adibidea Sierra Leonako kasua da. Munduko herrialderik pobreena da. 2003.urtean irakasle baten hileko soldata 38 eurotakoa zen.




## 4. Zer ari da egiten?

### Munduko zenbait adibide

 **Yuri Soto Mescco-ren istorioa.** Peruko Andeetako herrixka batean, Pongobamban, Cuscon, Yuri Soto Mescco burumuinetik elbarria zen mutil gaztea bizi zen. Gerritik behera ezin zen mugitu eta ezin zuen etxetik irten. Ezin zuen eskolara joan biderik ez zegoelako eta etxean, bere kasa ikasten zuen. Bere etxera eramaten zituzten liburu guztiak irakurtzen zituen. Bizilagunek zubi batzuk eraikiz eskolara joatera ahalbideratuko zion errepidea egin zuten. Yuri Sotoren eskolaratzeak, gainontzeko ikaskideei elbarritasunaren kontzientzia hartu eta arazo hau konpondu ahal izateko neurriak hartu daitzkeela irakatsi die. (*El comercio —Lima—, 2005eko azaroak 28*. Informazio gehiago: [www.elcomerciooperu.com.pe](http://www.elcomerciooperu.com.pe). Hemen ere informazioa bila dezakezu [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org)).

 **“Esku guztiak uztara ikasitako dena eskolara” / “Todas las manos a la cosecha, todo lo aprendido a la escuela”.** Venezuelan, Lara estauko Monte Carmelo komunitatean, emakume nekazari talde batek bertako produkzio katea erabat aldatu du. Elikagaien kooperatiba bat sortu dute. Gainera eskola munduan eta formazio munduan aldaketa nabarmenak, egokitzapenak eman dituzte. Irakasleek ikasgaiak eta eskolako ordu-tegiak nekazarien ezagutza mailara eta beharretara egokitzen dituzte. Emakumeen alde lan egiteko oso esperientzia interesgarria da. Baita genero berdintasuna bultzatzeko ere. Izan ere, gizonezkoek eta emakumezkoek modu eta baldintza berberetan egiten dute lana produkzioan eta banaketan ([gaudig10@hotmail.com](mailto:gaudig10@hotmail.com)).

 **Eskean dabilten haurrei arreta egitea.** Mundu guztian daude haur eskaleak, Mundu mailako arazoa da hau. Herrialde pobreetan arazoa handiagoa bada ere, herrialde aberatsetan ere badaude haur eskaleak. Helduek eta gurasoek haurrak esplotatzen dituzte, eskean ibiltzea derrigortuz. Ondorioz, haur hauek eskolara joan ezinik eta jolastu ezinik egoten dira. Elkarte asko dabiltz hau konpondu nahian. Nikaraguako Madriz-en nekazal zein hiri guneetan, gurasoek eta mundu honetan lanean dihardutenek, haurren formazioa bultzatu eta haur hauek jasotzeko zentro bat eraikitzeko lanean dabiltz. Programa bat jarri dute martxan eskean dabilzan haurrak



zentroetan jaso eta hezkuntza eskaintzeko. ISCOD-UGT Fundazioa dabil honetan ([www.mansunides.org/es/A%20Fondo%20Sierra%20Leone/Chemacaballero3.htm](http://www.mansunides.org/es/A%20Fondo%20Sierra%20Leone/Chemacaballero3.htm)).



**Irakasle bat babestu.** Chema Caballero Sierra Leonan dabil misio lanetan. Sierra Leona munduko herrialderik pobreenetakoa da. Gerrate bat pasa berri du eta milioika biztanle hil diren arren, gerrate horrek ez du mundu mailako komunikabideetan behar beste oihartzunik izan. Sierra Leona oso aberatsa da diamantetan eta hauen jabetzarekin egiteko sortu zen gerratea. Misiolari honek lan handia egin du. Gerra garaian,

armekin aritu ziren haur soldaduak zentroren batean jaso eta hezkuntza izateko aukera eman die. Gainera mundu mailan berria den babes modua asmatu du, irakasleen babesa hain zuzen ere. Bertako irakasleen soldata ordaintzeko dirua lortzea eskola eraikitzea baino zailagoa den arren, irakaslerik gabeko eskolak ezin du aurrera egin. Beraz, irakasleei ordaindu ahal izateko kanpaina jarri zuen martxan eta modu honetara haur hauen hezkuntza bermatu ([www.mansunides.org/es/A%20Fondo%20Sierra%20Leone/Chemacaballero3/htm](http://www.mansunides.org/es/A%20Fondo%20Sierra%20Leone/Chemacaballero3/htm)).



**Biztanle guztiei zuzendutako alfabetizazioa.** Nikaragua eta Venezuelako egitasmoa da. Esperientziaren arabera argi dago horretan lan eginez gero, epe batean herrialde bakoitzeko analfabetismo tasa jeitsi daitekeela. Nikaraguan, 80. hamarkadaren hasieran, 100.000 ikasle, brigadista batzuk eta zenbait herrialdetako gizarte taldeek antolatutako atxamenduei esker, analfabetismo tasa %50,2-tik %12,9-ra jeitsi zen. ([www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org), “Los momentos que brillan”. Dokumentalari buruzko artikuloa ikus daiteke hemen. Nikaraguako alfabetizazioaren aldeko egitasmoaren 25. Urteurrena). Venezuelan, 2003tik aurrera, alfabetizazioaren alde eta oinarritzko osasun zerbitzuen alde dihardute lanean. “Misiones Bolivarianas” (Robinson I, Robinson II, Mision Ribas, milaka pertsona alfabetatu dituzten elkarteak dira). 2006an biztanlegoaren %100-a alfabetatua izatea lortzekotan daude ([www.gobiernoenlinea.ve](http://www.gobiernoenlinea.ve)).



## 5. Zuh zer egin dezakezu?

- ➡ Mundu mailan hezkuntzan lan egiten duten elkarrekin harremanetan jarri eta bolondres moduan lagundu.
- ➡ Zure ikasketean sentsibilizazio kanpainaren bat egin. Zure ikaskideen esperientziak baliagarriak izan daitezke. Nolakoak dira beraien herrialdeetako ikasketxeak? Nolakoak beraien gurasoen garaikoak? Nolakoak ziren garai bateko estatu espainarreko eskolak? Nolakoak zuen gurasoen garaikoak? Hemen esandakoekin marrazki edo argazki erakusketaren bat antolatu dezakezue, bideo emanaldiak, muntaia digitalak... Egin daiteke!
- ➡ Saiatu zaituz pobrea den eta behar handiak dituen munduko tokiren bat ezgutzen eta zure ikasketean bertako ikastexeren batekin elkarlanean harremanetan hasi dadin saiatu. Web orri honetan adibideak ikusi ditzazkezu eta ideiak jaso: "Mi Escuela y el Mundo" ([www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org)), "Red de Escuelas Solidarias-en proposamena".

## 6. Non informatu zaituzke lanean hasteko?

- ➔ UNICEF: [www.enredate.org](http://www.enredate.org) Orrialde honetan eta izen bereko aldizkarian. Hemen lanerako porposamenak, deialdiak, haurrei buruzko artikulak eta elkaratasunaren ildoko hezkuntzari buruzko informazioa bila daiteke.
- ➔ ONGD bolondres programak. Mundu mailan hezkuntza programetan lan egiten dute. Hezkuntza mailan lanean diharduen zure inguruko jendeak, irakasleek, ikaskideek, eman dezaketen informazioa oso baliagarria izan daiteke.
- ➔ FETE-UGT [www.fete.ugt.org](http://www.fete.ugt.org) Hezkuntzako langileen sindikatuaren web orria da eta bertan hezkuntzari buruzko informazio berritua aurkitu dezakezu.

## 7. Gehiago jakiteko

- @ "Mi Escuela y el Mundo" web orriko artikulua eta materialak: [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org).

- @ UNESCO: “Hezkuntza guztiontzat kanpaina” / “Educación para Todos” ([www.unesco.org](http://www.unesco.org)).
- @ UNICEF: *Progreso para la infancia. Un balance sobre la enseñanza primaria y la paridad entre los géneros*. 2005eko apirila. UNICEF, Haurren baliabideei buruzko orria ([www.crin.info](http://www.crin.info)).
- @ Internacional de la Educación: [www.ei-ie.org](http://www.ei-ie.org) irakaskuntzako sindikatuen elkarte bat da. Hezkuntza guztiontzako, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, herri indigenen eskubideak eta bakearen aldeko hezkuntza defendatzen dute.
- @ Manos Unidas: Materiales de Educación en Valores para Primaria y Secundaria / Baloreetan hezitzeko lehen eta bigarren hezkuntzarako materiala ([www.manosunidas.org](http://www.manosunidas.org)) Elkartasuna lantzeko materialak.

# Hirugarren HELBURUA

sexuen arteko  
berdintasuna eta  
emakumearen  
autonomia bultzatzea



Las mujeres han de ser reconocidas. Sus palabras deben ser escuchadas. Las mujeres se adelantarán. Tal vez haya que profetizarlo o quizá no sea preciso, pero el sentimiento es tan fuerte que las mujeres se adelantarán y proclamarán lo que sienten. Tanto da que las gentes deseen o no oírlas, sucederá porque tiene que ser. Ya es tiempo.

Vickie Downey (India pueblo)



## 1. Aurkezpena

Gizarte askotan ematen da emakumearekiko diskriminazioa. Askotan normaltzat hartzen da eta ez da arazo kontsideratzen. Normaltzat hartzen da emakumezkoak gizonezkoen menpe egotea, gizonezkoek baino eskubide gutxiago izatea, gizonezkoek baino soldata bazuagoak izatea lan berbera egiteagatik eta bere senarrek jipoitu eta zigortu ditzazketela uste da.

Mundu guztiko emakume askok hamarkada asko daramatzate lanean emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortu nahian. Dagoeneko mundu mailako bost bilera handi egin dira arazoaz aritzeko. Beijinen edo Nueva Yorken egindakoak esaterako.

Egoera aldatzen ari da. Honen adibide estatu espainiarrean 30. hamarkadatik hona eman den aldaketa da. Hala ere ez da neurri berean aurreratu izan mundu osoan. Asian eta Afrikan arazoa eta desberdintasuna beste herrialdetan baino larriagoa da.

## 2. Zer ondorio ditu emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasunak?

-  Neskak eskolara joaten ez diren neurrian ezingo da eskolaratze unibertsala lortu. Bigarren eta hirugarren helburuak, beraz, erabat erlazionatuta daudela ikusi daiteke honekin. Neskek, neska izateagatik bakarrik, mutikoen baino eskolara joateko aukera gutxiago dituzte herrialde askotan. Mutilek baino neska gehiagok uzten diote eskola joateari denbora baino lehen haur eta familiak zaintzeko kargua bere gain dagoelako.
-  Egiatzatuta dago ikasketarik gabeko neskek ikasitakoak baino arazo gehiago dituztela. Ikasi gabeak pobrezian bizitzeko aukera gehiago dituzte, nerabe izanik ezkontzeko aukera gehiago, urte gutxitan erditze asko izateko aukera gehiago edota seme-alabak gaixotasunez galtzeko aukera gehiago.



- ❓ Analfabetismoak eragin handiagoa du emakumezkoetan gizonezkoetan baino. Biztanleria helduaren artean analfabetu direnen arteko bi herenak emakumezkoak dira.
- ❓ Askotan emakumezkoek mugatuta dute oinarrizko osasun zerbitzua. Honek haurdunaldiko eta erditu ondorengo arazoak gehitzen ditu eta ondorioz haurren hilkortasun-tasa handitu egiten da.

### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ 1980. urtetik hona bi sexuen arteko hezkuntza tasaren datuak berdintzen joan dira.
- ▲ Azken 20 urtetan emakumearen presentzia arlo publikoan gehitu egin da nahiz eta oraindik ere zailtasunak egon.

#### ▼ AlarmaK

- ▼ Biztanleriaren erdia emakumezkoa da. Baina berdintasun proportzional hau ez da alor guztietan errespetatzen. Arazoa ulertzeko bi adibide aipatuko ditugu: Egunean dolar batekin baino gutxiagorekin bizi den biztanleriaren %70-a emakumezkoa da. Lurren jabetzari dagokionez, berriz, lurraren %1-aren jabea bakarrik da emakumezkoen bat.
- ▼ Mundu mailan 15 urtetik gora dauden 860 milioi analfabetuetatik, hirutik bi emakumezkoak dira.
- ▼ Oraindik ere neskak eskolara joaten ez diren herrialdeak daude munduan. Asia eta Afrikako





egoera oso txarra da eta kontutan izan behar da oso herrialde jendetsuak direla.

## 4. Zer ari da egiten?



### Zenbait ekimen



**Emakumeen aurkako biolentzia gehiago ez.** Mundu guztiko milioika emakume biolentziaren biktima da. Mutilazioak, hilketak eta jipoiak jasaten dituzte egunero. Amnistia Internacional elkarteak, emakumearen biolentziaren aurka martxan jarri duen kanpaina da hau. Kanpaina hontan parte har dezazun animatzen zaitugu ([www.actuaconamnistia.org](http://www.actuaconamnistia.org)).




**Emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako mugimendua.** Emakumeen genitalen mutilazioa giza-eskubideen urraketa da eta egun, mundu mailako osasun arazo larri bat da. Hiru milioi haur eta emakumek jasaten dute genitalen mutilazioa. Otsailaren 6a, emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako eguna da mundu osoan. Mutilazioak indarrean darraien Afrikako zenbait herrialdetan, Senegalen adibidez, elkarte eta erakunde askok praktika honen aurka dihardute lanean ([www.canalsolidario.org](http://www.canalsolidario.org)).



### Mundu mailako zenbait adibide



**Gerriko berdeak Kenia / Cinturones Verdes en Kenia.** Wangari Maathai, biologoak, zuhaitzak berlandatzeko mugimendua jarri zuen martxan Kenian. Kenian emakumeak arduratzen dira elikagaiak, fuituak eta biltzen. Mugimendu honekin basoen eta fruitu arbolen zainketak eta zainketa egokiak ondoren dakarren fruituen kalitate eta kantitatearen arteko erlazioa erakutsi nahi izan zien bertako biztanleei. Ingurunea ez zaintzeak, elikagaien gabezia, fruituen gabezia eta sua egiteko behar den egurraren gabezia suposa dezakela azaldu nahi izan zuen. Modu honetara ehundaka "gerriko berde", hau da, landareak, zuhaitzak, landatu dira eta aldi berean emakumeak eta hurrek kudeatzen duten landare negutegi bat jarri da martxan. Wangari Maathari 1984ean, alternatibari emandako



Nobel Saria jaso zuen eta 2004. urtean Pakearen Nobel Saria ([www.solidaridad.universia.es](http://www.solidaridad.universia.es)).



**Aurrerabideko emakumeak / Mujeres del progreso.** Colombian biolentzia handia dago eta biolentzia honek biztanleriaren toki aldatzeak ekarri ditu. Bogota kanpo aldeko La Calera auzoako emakume talde batek haurrek eskolatik etxera itzultzean, etxeetan jatekorik ez zutelako kezkatuta, arazoa konpondu nahi izan zuten. Elkarte bat sortu eta haurrentzako jangela bat jarri dute martxan. Ekonomia informalean lanean diharduten emakume nekazariak dira egitasmoa burutu dutenak. Denborarekin jangela zerbitzua zaharrei eta beharrea dauden emakumeei ere zuzentzea espero dute. Bogotako udalak diru laguntzak ematen ditu egitasmoa bideratzeko eta egitasmoa, “Bogotá sin hambre” “Bogota goserik gabe” programaren ekimenetako bat da ([www.edithcarrillo@latinmail.com](mailto:www.edithcarrillo@latinmail.com), [asociacionitakas@yahoo.es](mailto:asociacionitakas@yahoo.es)).



**Emakumeen arteko lan eskubideen aldeko lana.** Amerikalatinar eta Cariben ISCOD —UGT— Fundazioak eta CIOSL/ORIT, mundu mailako sindikatu elkarteak, elkarlanean dihardute emakumearen lan eskubideen aldeko “Programa regional mujer y sindicato” programan. Emakume langileen eskubideak bermatzeko kanpaina da. Herrialde desberdinetako elkarteak modu antolatuan dihardute lanean emakumearen formazioa bultzatuz (Fundación ISCOD —UGT—, [www.ugt.es/iscod](http://www.ugt.es/iscod)).

## 5. ZUK zer egin dezakezu?

- Proposatu ezazu zure ikastetxean generoaren aurkako sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak martxan jartzea. Ekarte askok argitaratu dituzte horretarako baliagarria izan daitekeen materiala.
- Ikastetxeko arduradun eta irakasleei maitasun harremani buruzko formazioa bideratu dezaten eskatu eta lan mundurako sexista izango ez den ikuspuntutik bideratu zaitzaten eskatu.
- Lan egin ezazu ikaskideen eskubideak errespetatu daitezen. Nesken duintasunaren aurkako ekintzak salatu itzazu.
- Lagundu atzerritik zure ikastetxera etorritako neskeei. Bertan gustura egon daitezen saiatu.



- ➡ Sexista izango ez den eta emakumezkoen presentzia kontutan izango duen hizkuntzaren erabilera egokia erabili dezaten eskatu ikastetxeko irakasle eta arduradunei.
- ➡ Holandan, tradizioz gizonezkoen lanetan diharduten emakumezkoak gonbidatzen dituzte ikastetxeetara beraien esperientzien berri eman dezaten. Hau kopiatu daiteke.

## 6. Non informatu zaitezke lan egiteko?


- ➔ “Mujeres Jóvenes” elkarteak bertako talde eta ekimenen berri ematen duen web orria du. Kanpainak eta sentsibilizazio lanetan aritzeko materialaren berri ere ematen dute. ([www.mujeresjovenes.org](http://www.mujeresjovenes.org))
- ➔ Espainiako Gazte Kontseiluak ([www.cje.org](http://www.cje.org)) berdintasunerako departamentua dauka. Bertan, informazioa, ekintzak, gidak, proposamenak edo kanpainen berri izan dezakezu. Kontseiluaren bidez, estatu espainiar guztiko emakumeen elkarteekin jarri zaitezke harremanetan.
- ➔ Autonomi Erkidego desberdinetako emakumeen taldeek normalean lana bilatu ahal izateko, osasunerako eta sexuri buruzko programak izaten dituzte.
- ➔ [www.mujeresenred.net](http://www.mujeresenred.net) internet bidezko egunkaria da berdintasunari buruzko agenda eta informazioa jasotzen duena.

## 7. Gehiago jakin ahal izateko

- @ Emakumearen institutua / Instituto de la Mujer: “*Relaciona*” Berdintaduna bultzatu eta bi sexuen arteko harremanak azaltzeko inprimakiak dira.
- @ Luz Martínez Ten, Martina Tuts, Montse Boix y Lola Pérez: Guía para los Derechos Humanos de las Mujeres. Web orri honetan dago kontsultagarri [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org).
- @ [www.mediterraneas.org](http://www.mediterraneas.org) Mediterraneo inguruko emakume elkarteek egin-dako eskaerak, jasotako informazioa eta planteatutako proposamenak jasotzen dira.



## mundua aldatu dezakegu




- @ Nikki van der Gaag: *"En lucha. Las mujeres y sus derechos"*. Intermon Oxfam. 2005. Emakumeek ingurugiroari buruzko alorrean, emakumeen eskubideen alorrean eta munduarekiko elkartasunean egindako borrokek.
- @ Espainiako Gazte Kontseilua: *La igualdad de oportunidades y la participación social de las jóvenes*. Internetetik jeitsi daiteke: [www.cje.org](http://www.cje.org).

Laugarren HELBURUA

haurren heriotza-  
tasa gutxitzea

AMBIAR



Gosearen kuan  
nire haurra zegoen...

Miguel Hernández: *Nanas de la cebolla*




## 1. Aurkezpena

Herrialde pobreetan oso larria da haurren heriotza-tasa altua. Batez ere, bost urtetik beherako haurrena. Bost urtetik behera hiltzen diren haurren %1-a herrialde aberatsetan hiltzen den bitartean %50-a Afrika Subsahariarrean hiltzen da.

Herrialde pobreetan gainera, pobreenak dira gehien sufritzen dutenak. Zenbat eta pobreago izan handiago da bost urte bete aurretik hiltzeko arriskua.

Pobreziak egoera larriak sortzen ditu. Baina egoera aldatu egin daiteke aberastasuna modu egokian banatuz gero. Aberastasuna modu egokian banatu beharra dago eta herri aberatsek beren aberastasunaren zati bat herri pobre-  
ei emango balie egoerak hobera egingo luke. Konponbide bat, beraz badago.

## 2. Zeintzuk dira haurren heriotza-tasa gutxitzeko moduak?

-  Konponbidea, haurrek eta haurren amek oinarritzko osasun zerbitzua, ekikagai nahikoa eta edateko ura izan dezaten da.
-  Amek beren haurrei bularreko esnea ematea oso garrantzitsua da. Zenbait herrialde pobrek ez dute Munduko Osasun Elkarrekin proposatutakoa betetzen eta beren seme-alabei beren bularreko esnea eman ordez, biberoi bidez esne artifiziala ematen saiatzen dira. Behar bezala tratatu gabeko ura erabiltzen dute haurrak elikatzeke eta honek askotan kutsadurak eta gaixotasunak sortzen ditu. Uraren garbitasun eta tratatze faltak heriotzak dakartza askotan. Honetaz gain, hauetako emakume askok ez dute esnea erosteko nahikoa diru. Ezintasunak izanda ere emakume askok bularra baino biberioia ematea nahiago dute.
-  Amen hezkuntza maila ere ezinbestekoa da. Amek behar bezalako informazioa izateak bost urte azpiko haurren heriotza-tasan eragin positiboa izango du. Helburu guztiek dute erlazioa euren artean. Generoen arteko berdintasunaren alde lan egitea haurren biziaren alde lan egitea ere bada.



### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ Aurrerapen medikuek eta mundu mailako elikagaien produkzio egokiak haurren heriotza-tasa gutxitzea lortu dezakete.
- ▲ Haurren heriotza-tasaren aurka egiteko mundu mailan aurrerapenak ematen ari badira ere, aurrerapen hauek oso geldoak dira. Aurrerapenak orain artean bezala emanez gero, 2045. urterako bete ahal izango dira Milurtekorako helburuetan planteatutakoa. Pentsatuta zegoena baino 30 urte beranduago alegia.
- ▲ 1990. hamarkadan %50-ean jeitsi zen diarreez hildako haurren heriotza-tasa.

#### ▼ Alarmak


- ▼ Urtean 11 milioi haur hiltzen dira munduan. Haurren heriotza-tasaren aurka badira aurrera egin beharrean atzera egiten duten herrialdeak. Bost urte bete aurretik hiltzen diren haurren %1-a bizi da herri aberatsetan eta %42-a Afrika Subsahariarrean.
- ▼ Herri pobreetan haurren %9-a bost urte bete aurretik hiltzen da.
- ▼ Gerrateak eta pobrezia eragin handia dute heriotza-tasa altuan. Bost urtetik beherako bost umeetatik bat hiltzen den herrialde gehienetan gerrateren bat izan da 1999az geroztik.
- ▼ Haurren hilkortasun tasa genero desberdintasunarekin zuzenki erlazionatuta dago. Hezkuntzarik gabeko emakumeen seme-alabek bizi kalitate okerragoa eta hiltzeko arrisku gehiago dutela egiaztatuta dago.




## 4. Zer ari da egiten?

### Mundu mailako zenbait adibide


 **Jose Maria Bengoa eta elikapen arazoak konpontzeko zentroak.** Jose Maria Bengoa mediku euskalduna da, elikaduran eta osasun publikoan aditua. 40. hamarkadan, Gerra Zibiletik exiliatu ondoren Venezuelako Sanaren aritu zen mediku lanetan. Ikasketarik ez zuten petrikilo eta emaginen laguntzarekin, baliabiderik gabe, osasunerako oso arrakastatsua izan zen programa garatu zuen. Bertako jendearen desnutrizioa sortarazten zuten elikatzeke modu desegokiak zeudela antzeman zuen. Elikadura arazoak konpontzeko lehen zentroa sortu zuen. Urte bete eta lau urte bitarteko haurren amei beren seme-alabak behar bezala elikatzen irakatsi zien. Amak eta sema-alabak egun guztirako joaten ziren zentrora eta hemen egoki jaten irakasten zitzairen. Haurrek barre egiten zutenean sendatuta zeudela zioen berak. Denborarekin modu honetako zentruak mundu guztira zabaldu dira eta Afrika, Asia eta Latinoamerikako haur asko hemen ikasitakoari esker salbatu dira. Ospitalera joan beharrik gabe, zentro hauetara joanez, haur askok bere bizia salbatu du. ([www.fundacionbengoa.org](http://www.fundacionbengoa.org))

 **Haurrekin, ama direnekin eta eskoletan egindako lana.** Pobrezia guneetan oso ohikoa da haurrek lan egin behar izatea, gurasoek beren seme-alaben kargu ez egitea eta haurren desnutrizioa edota haurren arteko gaixotasun tasa altua. Dominikar Errepublikan, Padua elkarte espainiarra Sundebmunni dominikar elkartearen laguntzarekin batera, San Cristobal gunean dabil bertako haurrekin, amekin eta eskoletako arduradunekin lanean. Amei, formazio profesionala eskaintzen die negozioak zabaldu ditzaten, maileguak ematen zaizkie eta beste modu batzutar ere laguntzen zaie. Haurrei lagundu ahal izateko jangela zabaldu dute eta haurren mediku jarraipen egiten da. Eskolei ere laguntza ematen zaie, eskolan bertan tailerrak sortuz. Harremanetarako: [paideia@asociacionpaideia.org](mailto:paideia@asociacionpaideia.org).

 **Wukron laguntzen (Etiopia).** Angel Olaranek, apaiz espainiarrak 10 urte daramatza Etiopiako Wukron lanean. Munduko gunerik pobreenetakoa da. Lan handia dago egiteko bertan. Hiesaren aurka, tuberkulosiaren aurka, desnutrizioaren aurka eta oinarrizko hezkuntza eta osasunaren alde aritu beharra dago. Gurasoen heriotza-tasa handiaz kezkatuta, anai-arreben arteko familiak



## mundua aldatu dezakegu



bultzatu zituen Olaraneke gurasorik gabe geratutako anai-arreben artean. Modu honetara anai-arrebek etxe eta familia desberdinetan sakabanatuak izatea ekin eta anai-arreba hauek gurasoen etxean bertan, denek batera bizi zitezen bultzatu zuen. “Elkartasunezko jangela” edo “jangela solidarioa” antolatu du eta hemen umezurtz geratutako 500 haurri ematen zaio jaten ([www.jangelasolidaria.com](http://www.jangelasolidaria.com)).



**Ama eta haurren osasuna Senegalen.** Podorren, Senegal iparraldean, Mauritaniaren mugan, Tierra de Hombres gobernuz kanpoko erakundeak Espainiako Elkarkidetzako Agentziaren laguntzarekin batera, ama direnen osasunaren alde eta bost urtez azpiko haurren heriotza-tasa gutxitu ahal izateko programa bat jarri du martxan. Bertako osasuneko langileak egitasmo honetan inplikatu ditu gainera. Langile hauek informazioa zabaltzen dute haurren osasunerako amen bularra hartzeak duen garrantzia goraiatuz eta Hiesa ekiditeko preserbatiboak erabiltzearen beharraren berri ere ematen dute ([www.tierradehombres.org](http://www.tierradehombres.org)).

## 5. Zuk zer egin dezakezu?

- ➡ Gosearen aurka lanean diharduten elkarrekin harremanetan jarri zaitez. “Pobreza Cero” / “Pobrezia Zero” (*Ikusi lehenengo helburua*) plataformako elkarrekin batean bolondres moduan aritu zaiteke).
- ➡ kastetxean antolatu ezazu munduan bizi den gosearen arazoari buruzko ekitaldiren bat. Erakusketaren bat antolatu dezakezu, edota marrazki lehiaketaren bat, musika emanaldiren bat, antzezlanen bat edota zine emanaldiren bat. Gosearen arazoari buruzko erreflexioa bideratuko duen ekintzaren bat antolatu.



- ➡ “Pobreza Cero” / “Pobrezia Zero” kanpainaren berri eman zure ikaskide, lagun, senitarteko eta ezagunei.
- ➡ Informatu zaitetz zure auzoan, herrian edo probintzian gosearen aurka lanean diharduen talderik ba ote dagoen eta bertan lan egin ezazu bolondres moduan.

## 6. Non informatu zaitetzke lan egiteko?

- ➔ Gobernuz kanpoko erakundeek herrialde desberdinetan burutzen ari diren kanpainen berri orri hauetan aurkitu ditzazkezu: [www.jangelasolidaria.com](http://www.jangelasolidaria.com) (Etiopia) [www.accionporlainfancia.org](http://www.accionporlainfancia.org) (India) [www.africadirecto.org](http://www.africadirecto.org) (Malawi), eta mundu mailan lan egiten duten espainiar estatuko gobernuz kanpoko erakundeetako orrietan ere aurki dezakezu informazioa. Hala nola elkarte hauetan: Manos Unidas, Intermon Oxfam o Ayuda en Acción, ACSUR-Las Segovias, PTM-Mundubat, MPDL, IPADE, ISCOD...
- ➔ Amek haurrei bularra eman diezaieten aldeko elkarteen berri ere badago. Esnearen liga edo Liga de la Leche ([www.lalecheleague.org/LangEspanol.html](http://www.lalecheleague.org/LangEspanol.html)), orri hau ere baliagarria da [www.crianzanatural.com](http://www.crianzanatural.com) hemen zure bizitokitik gertu lanean diharduen elkarteren baten berri izan dezakezu.
- ➔ Zure udaletxeko gizarte zerbitzuen bitartez edo inguruko elkarteren baten bitartez, bilatu ezazu zure herrian edo zure bizilekutik gertu egoera txarrean dauden haurrei lagundu ahal izateko modurik.

## 7. Gehiago jakiteko

- @ UNICEF: *Progreso para la infancia. Un balance sobre la enseñanza primaria y la paridad entre los géneros*. 2005eko apirila.
- @ Jeremy Seabrook: *El mundo pobre*. Intermon-Oxfam, 2004.
- @ Garapenerako Nazio Batuen programa: Milurtekorako helburuak: aurrerape-nak, atzerapenak eta erronkak —2005—. Kontsultatzeko: [www.educacionvalores.org](http://www.educacionvalores.org).



mundua aldatu dezakegu

- @ *Informe sobre desarrollo humano (2005), Garapenerako Nazio Batuen programa.*
- @ Médicos sin Fronteras ([www.msf.es](http://www.msf.es)), Médicos del Mundo ([www.medicosdel-mundo.org](http://www.medicosdel-mundo.org)) edo Manos Unidas ([www.manosunidas.org](http://www.manosunidas.org)) elkarteen ekimenak jaso daitezke orri hauetan.

# Bosgarren HELBURUA

ama direnen osasuna  
hotetzea

AMBIAR



Ya es tiempo para la mujer. Hora de hablar y de enderezar las cosas, de que las mujeres se alcen. Y cuando el mundo honre a las mujeres, a las madres, a la madre tierra, todos se hallarán mejor.

Cecilia Nitchell (una mohawe)






## 1. Aurkezpena

Ama direnen osasuna hauxe da: Ama izan aurretik eta ondoren emakumeek behar dituzten osasun zerbitzuak. Milurtekorako helburuek 2015. Urterako, ama direnen heriotza-tasa hiru laudenera jeistea proposatzen dute.

Munduko herrialde askotan haurdunaldiek eta erditzeak oso arriskutsuak dira emakumeentzat, beraien bizia arriskuan egoten da. European XX. mendeko hasieran ematen ziren egoera larri hauek, egun, oraindik ere herri pobreetan gertatzen dira, Afrika Subsahariarrea batez ere.

Baina erditzean ematen den osasun zerbitzua oso garrantzitsua izanik ere, ez da arazo bakarra. Ama direnek beraien komunitateko laguntza behar dute erdi-itu aurretik eta erditu ondoren. Izan ere haurrek jaio berritan eta bizitzako lehen urteetan amarenganako erabateko dependentzia dute. Ama direnen osasuna bermatu ahal izateko familia pobreei laguntza ematea ezinbestekoa da. Ama hauei beharrezkoak dituzten osasun zerbitzuak doan eskaini behar zaizkie.

## 2. Ze elementu dira beharrezkoak ama direnen osasuna bermatzeko?

-  Laugarren helburuarekin (haurren heriotza-tasarekin bukatzea) zer ikusi handia dute. Izan ere pobrezia eta pobrezia honek suposatzen duen oinarritzko zerbitzuen gabeziak, ama direnen eta hauen seme-alaben bizitzeko ahalmena arriskuan jartzen dute.
-  Munduko toki desberdinetako emakume askok haurdunaldian, erditzean eta erditu ondorenean doaineko osasun zerbitzuak, informazio zerbitzuak eta hezkuntza zerbitzurik ez dituzte jasotzen. Zerbitzu hauek jaso ahal izatea bideratu beharra dago mundu osoan, izan ere, egun, oso herrialde gutxi dira zerbitzu hauek doan eta bertako emakume guztientzat eskaintzen dutenak.
-  Gainera, emakumeei ama izan aurretiko eta ondorengo arazoei eta lan egiteko moduari buruz informatu behar zaie, hezkuntza sexualean hezi behar zaie, gaixotasun sexualei buruzko berri eman behar zaie. Hauek





guztiak ezinbestekoak dira Hiesa gainditu ahal izateko. Preserbatiboek Hiesaren aurka egiten dutela egiaztatuta badago ere, badira sinismen erlijiosoengandik edo beste arrazoi batzurengandik preserbatiboan erabilpenaren eta banaketaren aurka dauden herrialdeak, bizi duten arazoa handitu egiten du honek.

### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ Munduko herrialde askotan 90. hamarkadaz geroztik asko aurreratu izan da erditzean eta haurdunaldi garaian emakumeari ematen zaion osasun zerbitzuan. Asia, Amerikalatina, Caribe eta Estatu arabiarrek honen adibide dira.

#### ▼ Alarmaak

- ▼ Erditzean edo haurdunadietako arazoengatik hiltzen diren emakume gehienak herrialde pobreetan bizi dira. Milioi erditik gora emakume hiltzen da urtero erditzean eta beste askok ezintasunak edo elbarritasunak jota geratzen dira erditutakoan izandako arazoengatik.
- ▼ Afrika Subsahariarrean egoera ez da aldatu eta erditzean duela hamarkada batzuk zeuden arazo berberak daude oraindik ere. Aurrerapena hemen eskasa eta motela da.
- ▼ Hiesak eragin handia du herrialde pobreetako emakumeengan. Afrika Subsahariarrean Hiesaz gaixotzen diren emakumeen kopurua gizonezkoen kopurua baino sei aldiz handiagoa da. Emakume hauen seme-alabak seropositiboak izateko aukera asko dute gainera.

## 4. Zer ari da egiten?

### Mundu mailako zenbait adibide

-  **Eskubide sexual eta ugalketa eskubideei buruzko sentsibilizazioa.** “Cara a cara” programa, Europako Planifikazio Familiarreko Nazioarteko Federazioak bultzatu du. Eskubide sexualen eta ugalketa eskubideen aldeko sentsibilizazio kanpainak antolatu dira. Ama direnen eta haurren osasunaren alde, emakumeen genitalen mutilazioaren aurka eta emakumeek eta gazteek hezkuntza sexuala jasotzeko eskubidearen alde dihardu lanean. ([www.fpfe.org](http://www.fpfe.org))
-  **Jangelen lanean dabilzan amak.** Latinoamerikan eskolak etxeetatik oso urruti daudenez, zenbait kasutan, amentzako oso zaila egiten lan mundua ama izatearekin lotu ahal izatea. Arazoa konpontzeko eskoletan jangelak antolatu dituzte, sukalde bat eta janaria pilotuta besterik ez dute, eta amek, txandak egiten dituzte jangelaz arduratzeko. Modu honetara jangelan egon behar ez dutenean lanean soldatapean egoten dira. Egitasmo honek mundu mailako elkarkidetzarako programen laguntza du.
-  **Nerabe diren amentzako hezkuntza.** Nerabe izanik familia izateak emakumearen etorkizuna asko mugatu dezake. Herrialde pobreetan nerabe asko dira ama, arazoa oso zabaldua dago eta honen aurka lan egitea ezinbestekoa da. Perun, Villa El Salvadorren, bertako elkarte batek eta mundu mailako elkarteen elkarlanaren bidez ama nerabeei hezkuntza eman eta lan munduan aritzeko laguntzak ematen dizkie. Honetaz gain pertsona bezala garatu daitezkeen hezkuntza eskaini eta autoestima, nortasuna lantzeko laguntza ematen zaie, amatasunaren aurrean nola jokatu, haurrekin zer egin, nola hezi... erakusten zaie ama nerabeei (Fundación ISCOD —UGT— [www.ugt.es/iscod](http://www.ugt.es/iscod)).
-  **Parte hartzeko eta osasunerako eskola.** Sendagai tradizionalen berreskurapena eta haurdun edo erditu berri duten emakumeek behar duten informazioa eta osasun zerbitzua eskaini ahal izateko ezinbestekoa da osasun alorrean lan egiten duten langileen hezkuntza egokia. Haurren heziketarako, zainketarako, egoki elikatzeko, behar bezalako garbitasun neurriak izan dezaten informazioa eskaintzen duen osasun alorreko langile talde bat sortu da. Venezuelan, Tarman, Vargas estatuan, Caracasen bertan, emakume talde bat sendagai alternatiboak eta tradizionalak ezagutu eta beraiekin lan egiteko egitasmoa jarri zuten martxan. “Gizartean parte hartzeko osasun eskola” izena





## mundua aldatu dezakegu

hartu zuen egitasmoak. Emakumezko asko, indigenak gehienak, bertara joaten dira formazioa jaso, erditze garairako prestatzeko edota osasun neurriak hartzeko. Garai bateko sendagai tradizionalak eta belarrak erabiltzen saiatzen dira (pazyvida@hotmail.com).



### **Osaun sexuala eta ugalketari buruzko informatzaileen hezkuntza.** Osa-

sun bultzatzaileak bilatzea oso garrantzitsua da. Medicos del Mundo elkarteak, osasun sexualari buruzko eta ugalketari buruzko informazioa eskainiko duten bultzatzaileen hezkuntzaz arduratzen da. Bultzatzaile hauek harrialde pobreetako emakumeak izaten dira. Hezkuntzarik gabekoak izaten dira eta osasun sexualari buruzko eta ugalketari buruzko informazioa eman ahal izateko hezkuntza egokia jasotzen dute alde aurretik. Haurdunaldi garaiko arazoak kontrolatzea edota garbitasun kontuak kontutan hartzea erakusten zaie ([www.medicosdelmundo.org](http://www.medicosdelmundo.org)).



## 5. Zuh zer egin dezakezu?

- ➔ Ama direnen osasuna ez da bakarrik medikuek haurdunaldi garaian emakume hauei eman diezaieken zerbitzua. Hau baino gehiago ere bada. Pobrezian bizi diren amei eman beharreko laguntza ezinbestekoa dela argi dago. Informatu zaitez zure inguruan beharrean dauden amei laguntzeko dauden elkarreetaz eta zu ere lanean hasi zaitezke.
- ➔ Laguntza eskaini iezaezu atzerritik etorritako emakumeei eta atzerritik etorriak izanagatik edota bertakoak izanik egoera txarrean dauden emakumeen alde lan egiten duten elkarteetan lagundu ezazu. Atzerritarrei bertako hizkuntza

ikasten lagundu diezaiekezu. Edozein herrialdetan integratu ahal izateko bertako hizkuntza ezagutzea ezinbestekoa baita.

- ➡ Mundu mailan osasun alorrean lan egiten duten elkarteetan parte har ezazu. Dirua emanez, diru bilketan laguntzen edota zure inguruan, ikastetxean, herrian edo auzoan kontzientziazio kanpainetan parte hartuz.
- ➡ Eskubide sexualen alde antolatzen diren kanpainetan edota emakumeen genitalen mutilazioaren aurka lan egiten duen elkarteetan parte hartu ezazu.

## 6. Non informatu zaitezke lan egiteko?

- ➡ Esnearen aldeko liga / Liga de la Leche. Amen bularreko esnea ematearen aldeko taldeak: [www.lalecheleague.org/LangEspanol.html](http://www.lalecheleague.org/LangEspanol.html). Amen bularreko esnea ematearen aldeko taldeek estatu guztian dihardute lanean. Ama izango direnen alde lanean diharduten bolondresek osatutako taldeak diran. Informazio lanak egiten dituzte.
- ➡ Médicos sin Fronteras ([www.msf.org](http://www.msf.org)), Médicos del Mundo ([www.medicosdel-mundo.org](http://www.medicosdel-mundo.org)) osasun sexualean eta ugalketan oinarritutako osasun zerbitzua eskaintzen dute mundu mailako herrialde guztietan.
- ➡ Espainiako Familiarako Planifikazioarako Elkartea / Federación de Planificación Familiar de España: [www.fpfe.org](http://www.fpfe.org). Ama direnen osasunari buruzko informazioa bila dezakezu hemen. Zure bizitokiaren inguruan lanean diharduten taldeak aurki ditzazkezu hemen.

## 7. Gehiago jakiteko

- @ *Ama direnen mundu mailako txostena, 2005, Save the Children.* Amatasunari buruzko eta munduko pobrezia buruzko informazio ugari eskaintzen duen txostena.
- @ Amnistia Internacionaleko “Emakumeen aurkako biolentzia gehiagorik ez” kanpaina / campaña “No más violencia contra las mujeres” de Amnistía Internacional: [www.actuaconamnistia.org](http://www.actuaconamnistia.org). Kanpainan parte hartu eta zabalteko materiala.

- ④ Carlos González: *Mi niño no me come. Quiéreme mucho: cómo educar a tus hijos con amor* (Ed. Temas de Hoy). Amen ezagutzan eta maitasunean oinarritutako hezkuntza eta amaren bularreko esnearen bidezko haurren elikaduran oinarritutako bi liburu dira.
- ④ María José Urruzola Zabalza: *“Guía para chicas”*. Hemen aurkitu dezakezu: [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org).

# Seigarren HELBURUA

hiesa, malaria eta  
beste zenbait  
gaixotasun eragotzi

AMBIAR



Estadistiken arabera, pertsona batek mila dolar jasotzen baditu, eta beste batek ezer jasotzen ez badu, hauekako pertsona bakoitzak 500 dolar jasotzen ditu sarrera moduan per capita datuetan.

Inflazioaren aurkako borrokaren arabera, adostasun neurriak oso konponbide ona dira. Gaitz hauek jasaten dituenen ikuspuntutik esan adostasun neurriek kalte egiten dietela neurri hauek, kolera, tifusa, tuberkulosia eta beste gaitza asko biderkatzen dituztelako.

Eduardo Galeano







## 1. Aurkezpena

Helburu nagusia Hiesarekin bukatu, Hiesaren zabalkundea gutxitu eta malaria eta tuberkulosiaren eraginak eragozte da. Mundu mailan zabaldurik dauden gaixotasunak dira eta herrialde batetik bestera errez pasatzen direnak.

Malaria, Hiesa eta beste izurrite batzuk herrialde pobreenetan aberatsetan baino askoz ere ugariagoak dira. Estatu Batuetan edo Europan apenas ematen da tuberkulosia edo malaria kasurik eta Hiesa aurrarakuntza zientifikoei esker, gaixotasun kronikoa bilakatzen ari da denborarekin. Oso gaixotasun larria da oraindik ere baina egun ez du derrigorrezko heriotza suposatzen.

Milurtekorako helburu guztiek batak bestearekin zer ikusi handia dute eta garbi dago pobrezia egoerarik larriena dela eta gainontzeko helburuak lortzen laguntzen ez duena.

## 2. Hiesa eta gainontzeko pandemiaK eragotzi ahal dira?

-  Gaixotasun hauek munduko tokirik pobreenetan eta bertako gizakirik pobreenetan dute eraginik handiena. Hezkuntza ezak, osasun zerbitzu faltak, edateko uraren faltak eta elikadura faltak gaixotasun asko eragiten dituzte. Gabezi hauek guztiekin bukatzeak gaixotasun hauen erabateko desagertzea bermatuko ez balu ere, gaixotasun hauen kontrola bermatu eta gaixotasun hauen kutsadura ekidingo luke.
-  Hau guztia kontutan hartuta, arazo hauek mundu mailan dagoen injustizia egoerak sortutakoak direla, hau da, gizakiak sortutakoak direla esan daiteke. Eta ez uste den bezala, munduko zenbait tokitan ematen diren hondamen naturalen ondorioz sortutako egoera larriak direla.

### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ 1977. urtean bantanga eragotzi zen, planifikatuta zegoena baino 11 urte beranduago.
- ▲ Medikuntza munduan eman diren aurrerapen zientifikoak. Hiesa gaixotasun kronikoan bilakatu da, hau da derrigorrez heriotza sortu dezakeen gaixotasuna izateari utzi dio medikuntza munduan emandako aurrerakuntzei esker, gaixotasuna tratatzeko beharrezkoak diren sendagaiak ordaintzeko ahalmena duten herrietan.
- ▲ Prebentziorako neurriak eta batez ere preserbatiboen erabilpen zabalak Hiesa ekidin dute.
- ▲ Malariaren aurkako prebentzio eta tratamendurako ikerketak aurrera darrai.

#### ▼ AlarmaK

- ▼ Garapenean dauden herrialdeetan biztanlegoaren gehienak ez du Hiesaren moduko gaixotasunak suposatzen duen sendagaien gastuari aurre egiteko behar beste diru. Botika munduko ikerkuntzak munduko ikerkuntzaren %90-ekoa da, baina hau guztia mundu mailako biztanleriaren %10-ak pairatzen dituen gaixotasunak aztertzeke erabiltzen da. Hau da gizarte aberatsetan ematen diren gaixotasunak aztertzeke eta ez herrialde pobreetan ematen diren gaixotasun larriak ikertzeke.
- ▼ Afrika Subsahariarreko biztanlegoaren bizi-itxaropena 47 urtetan dago. Hiesarik gabe 62 urtetan egongo litzateke. Bizi-itxaropena 33 urtetan duten herrialderik era bada. Hiesa Afrika Subsahariarreko heriotza-tasaren arrazoirik nagusia da.
- ▼ Mundu mailan lau heriotzetatik bat Hiesagatik gertatzen da. Egunero 8000 gizaki hiltzen dira Hiesak jota eta 2005ean 40 milioi gizaki zeuden Hiesaz gaixotuak.
- ▼ Herri aberatsetan edo "garatuetan" Hiesaren aurrean jendeak dituen beldurak eta Hiesaren prebentziorako neurriak aldatzen ari dira. Gaixotasunak derrigorrez hilgarri izateari utzi dionetik, biztanlegoa lasaitu egin da. Estatu





espainiarrean %0,4-a eta %0,7-a bitarteko biztanlegoak du Hiesaren gaixotasuna. (150.0000 eta 280.000 pertsona bitartek.)

- ▼ Malariak 500 milioi biztanlek pairatzen dute eta urtero hauetako milioi bat pertsona hiltzen da.
- ▼ Tuberkulosia apenas ematen da herri garatuetan, baina herrialde pobreetan bi milioi biztanle hiltzen dira gaixotasun honek jota, eta gaixoen kopurua gora doa gainera.

## 4. Zer ari da egiten?


### Zenbait ekimen

 **Hiesaren aurkako komiteak / Comites anti-SIDA.** Seropositibo diren pertsonen alde lan egiten duten elkarteak dira. Kontzientziazio eta prebentzio ekintzak antolatzen dituzte. Espainiar estatuko hiriburu askotan daude Hiesaren aurka lanean diharduten komiteak. Prebentziorako eta berdintasunaren aldeko politikak defendatzen dituzte. Preserbatiboaren erabilpena bultzatzea, estigmatizazioak ekiditea, homofobiaren aurka lan egitea dira dituzten helburuetako batzuk. Ronald Reagan ordean, hau guztiaren kontrako kanpaina egin zen Estatu Batuetako presidentea izan zen garaian eta kontserbatzaileen kanpaina horrekin darraite oraindik ere. Galizan bada Hiesaren aurka lanean diharduen talde bat: [www.causaencantada.org](http://www.causaencantada.org).

 **Lan diskriminazioaren aurka.** Hiesa duten gaixo asko bere giza-eskubideak urratuta ikusten dituzte. Lan gabe gelditzen dira justifikaziorik gabe, gaixo izanagatik bakarrik, lanean diskriminazioa jasaten dute. Red 2002, 2002 Sareak, giza-eskubideen behatokiak eta Hiesaren aurkako taldeak, kanpaina bat jarri dute martxan elkarlanean. “Lantokian eskubidea duzu” kanpaina hain zuzen ere. Kanpaina honen bidez ohikoen diren diskriminazio kasuak azaldu eta hauen aurrean nola jokatu eta zer egin azaltzen da ([www.todosida.org](http://www.todosida.org)). Kanpaina honetako materiala web orri honetan dago kontsultagarri: [www.observatorio.red2002.org.es](http://www.observatorio.red2002.org.es).




## Mundu mailako zenbait adibide

 **Act-Up.** Hiesa duten gaixoen aurka ematen diren diskriminazioen aurka lan egiten duen elkarte da. Parisen sortu zen 1989an, gay eta lesbiana egunaren inguruan. Munduko beste elkarte batzuentzako oso baliagarria izan den taldea da. Kanean protesta ekimen asko egin izan dira. Taldeak diskriminazio asko salatu ditu, medikuek gaixo baten gaixotasunaren berri edonon zabaldu izana, intimitatearen askatasunaren aurka aritzea, gaixotasuna ekiditeko ikerkuntzari ematen zaion dirulaguntza urriaren salaketa, zenbait erlijioaren postura eta preserbatiboen erabilpenaren aurka dauden zenbait elkarte salatu dituzte kanpaina honetan ([www.actupparis.org](http://www.actupparis.org)).

 **Bolondresak Hiesaren aurka Mozambiken.** Mozambique munduko hamar herririk behartsuenetakoa da. Mozambiqueko bizi-itxaropean 38 urtetan dago, neurri handian Mozambiken Hiesaren gaixotasuna oso zabaldua dagoelako. Sant Egidioko biztanleak, Maputon, Hiesaren aurkako tratamendurako programa jarri zuten martxan. Osasun alorreko langileei zuzendutako programa hain zuzen ere. Programa honi esker ama diren askori lagundu izan zaio haurdunaldian, erditzean eta erditu ondoren eta ondorioz haur askoren bizia salbatu da. Malawi, Tanzania, Ginea Bissau eta hegoaldeko Afrikan Mozambiken sortutako programa kopiatu da ([www.manosunidas.org](http://www.manosunidas.org)).



 **Tuberkulosiaren aurkako borrokaren arrakasta Camerunen.** Alberto Piubello medikuak, Manos Unidas elkartearen laguntzarekin, tuberkulosiaren gaixotasuna duten %85-a sendatzea lortu du Milurtekorako helburuak betez. Mediku honek osasun hezkuntza bultzatzen du eta gaixoei sandagaiak hartzen dituztela ziurtatzeko lantalde bat sortu du. Programa hau 70.000 pertsoneri zuzendua dago. ([www.manosunidas.org](http://www.manosunidas.org))



**Malariaren aurkako borroka Bangladeshen.** Bangladeshen tuberkulosia oso arrunta da. Pobreziak tuberkulosiaren sorreran eragin handia du. Bangladeshen bost urtez azpiko haurren %32-ak desnutrizio arazoak ditu. 1999. Urteaz geroztik, Médicos sin Fronteras elkarteak malaria tratatzeko erietxeak sortu ditu Banglaseheko gune desberdinetan. Osasunerako hezkuntza arduradunek erietxeetatik gertu dauden herrixketara joaten dira informazioa ematera. Informazio hau behar bezala emateko, askotan jokuak erabiltzen dituzte. Malariaren aurkako prebentzioa eta hekuntza eskaintzen dute, emakumeen haurdunaldi garaia zaintzen dute eta oinarritzko garbitasunaren beharraren berri ematen dute. Elikadura programak ere garatzen dira ([www.msf.es](http://www.msf.es)).

## 5. Zuk zer egin dezakezu?

- Babestu zaitetz, babesak har itzazu eta Hiesaren zabalkundea geratzen lagundu ezazu. Kutsadura ekiditeko modu bakarra preserbatiboak erabiltzea da. Informatu zaitetz, babestu zaitetz eta sexua modu librean bizi ezazu baina kutsatzeko arriskurik gabe.
- Sexu harremanetan preserbatiboaren erabilera beharrezkoa dela infromatzen duen elkarteren batekin harremanetan jarri zaitetz eta zure ikastetxera hitzaldiren bat eman dezaten gonbidatu.
- Hiesaren, tuberkulosiaren eta malariaren aurka lanean diharduen elkarkidetako talderen batean parte hartu ezazu.
- Hiesa duten gaixoak gonbidatu itzazu zure ikastetxera. Beraien gaixotasunaren berri eman dezaten.

## 6. Non informatu zaitetzke lan egiteko?

Hiesari buruzko informazioa, bolondres lanak, informazio kanpainak eta salaketak:



Federación de Planificación Familiar de España. Centros Jóvenes de Anticoncepción y Sexualidad: [www.fpfe.org](http://www.fpfe.org).



mundua aldatu dezakegu

- ➔ Unión para la ayuda y protección de los afectados por el SIDA: [www.una-pro.org](http://www.una-pro.org)
- ➔ Asociación "Apoyo Positivo": [www.apoyopositivo.org](http://www.apoyopositivo.org).

Mundu mailako kanpainei buruzko informazioa: UNICEF orrian informatu zaitezke [www.enredate.org](http://www.enredate.org)

## 7. Gehiago jakiteko

- @ Ricardo Llamas (comp.): *Construyendo identidades. Estudios desde el corazón de una pandemia*. Madrid, S. XXI Editores, 1995.
- @ Hiesaren aurka elkarlanean egindako ekimenak. Médicos sin Fronteras. [www.msf.es](http://www.msf.es).
- @ Herrialde pobreetan Hiesa, tuberkulosia eta malariaren aurkako tratamenduak egiteko programak: [www.manosunidas.org](http://www.manosunidas.org).

# Zazpigarren HELBURUA

ingurugiro jasangarria  
mantentzea

AMBIAR





Hau badakigu. Lurra ez da  
gizakiarena. Gizakia da  
lurrekoa dena.


Seattle buruzagiak, Suquamish-en  
liderrak, Washington presidenteari  
bidalitako gutunetik hartua, 1855


## 1. Aurkezpena

Ingurugiroaren krisia ez da 70. hamarkadan bezalaxe ekologista taldeen ardua bakarrik. Zientifikoek ere egoera larrian gaudela diote. Gizakiok zer ikusi handia izan dugu ingurugiroaren egoera larrian. Eta orain arte bezala jarraituz gero etorkizunean egoera okertu egingo da.

*Milurtekorako ekosistemen bilakaera / La Evaluación de los Ecosistemas del Milenio* 95 herrialdeko 1800 adituek Ingurugiroako Nazio Batuak aginduta egingdako txostena da. Mundu mailako adituek ingurugiroari buruz hartu beharreko erabaketan oinarri bat izan zezaten egin zen txotena. Txostenaren arabera gizakiak azken 50 urtetan erabat aldatu du ekosistema, historian zehar eman den adaketarik kaltegarriena eta azkarrena emanez. Txostenak hala dio: Gizakia ekosistemaren baliabide askoren menpe dago bizi ahal izateko Bizi ahal izateko beharrezkoak dituen baliabide hauek kaltetzen jarraituz gero alperrikakoak izango dira giza-eskubideen aldeko lan guztiak. Pobrezia eta gosea ekiditeko helburua, osasunaren hobekuntza edota ingurugiroaren aldeko lana alperrikakoak izango dira oinarrizko baliabideen existentzia bermatzen ez bada.

## 2. Zer esan nahi du ingurugiro jasangarriak?

 “Jasangarria” hitzak, denboran mantentzea esanahi du. Denbora pasa ahala irauten duena da. Azken urteotan asko hitz egin da “ingurugiro jasangarriaz”. Ingurugiro jasangarria etorkizunerako dugun erronka da. Hau da, gizakion ongi izatea mantentzea eta behar-beharrezkoak ditugun sistema naturalak behar bezala erabiltzea da. Gure belaunaldiaren mesederako ezik, etorkizunerako era ingurugiroa ez kaltetzea komeni da.

 Honek aldaketa oso garrantzitsuak ekarriko ditu. Batetik oinarrizko beharrak ere ez dituztenen beharrak ase betetzea ezinbestekoa da. Bestetik herri aberatsek, bere garapen modua aldatu beharko dute. Modu honetara lurraren baliabide naturalak ustiatzeko garaian kontu gehiago egin beharko da, bukatu daitezkeela ohartzuz. Naturaren baliabideak errespetatzen dituen garapena eta aberastasunaren banaketa justoa bermatzen duen gizartea, izan daiteke jasangarria. Hau da, denboran iraun dezakeena.



### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ *Kiotoko protokoloa* (1997). Klima aldaketari aurre egiteko sinatutako mundu mailako lehen ituna izan da. 129 herrialdek sinatu dute eta atmosferaren beroketa eragiten duen gasen igorpena murrizteko konpromezua hartu dute herrialde parte hartzaileek. Aditu gehienak bat datoz CO<sub>2</sub>aren igorpena eta negutegi efektua eragiten duten beste gas batzuen igorpena murrizteko behar-rean. Hala ere Estatu Batuak eta zenbait enpresa handik ez dute klima aldaketa ematen ari denik entzun ere egin nahi.
- ▲ 90. hamakadatik hona, 1992an Rio de Janeiron egindako hitzaldiaren ondoren, ingurugiro jasangarrirako programak bultzatzea ari dira mundu mailan. Programa hauetako batzuk “Agenda 21”ak dira, udalerrri mailan lan egiteko antolatutak. Udal agintariei eta herritarrei ingurugiroa errespetatuz, herria biztanleriarentzako modu egokienean antolatuzeko moduz pentsa araztea du helburu.


#### ▼ Alarma


- ▼ Herrialde askok, estatu espainiarrak euren artean, gasen igorpena murrizteko hartutako konpromezua betetzen dute. Hala ere, Australia edota Estatu Batuak Kiotoko Protokoloaren aurka daude oraindik ere.
- ▼ Azken 20 urteetan planetako fauna eta floraren herena galdu dela estimatzen da. Badira, aurreantzean aurre egin beharko dizkiegun beste arazo batzuk ere. Hala nola, arrantza erreserben gutxitzea, zenbait erregai naturalen gehiegizko kontsumoa, basoen hondamendia, desertifikazioa, itsasoko ekosisteman ematen ari diren hondamendiak edota ur gozoaren kalitatearen galtzea beste zenbaiten artean.
- ▼ Herrialde eta biztanle aberatsenek ardura handia dute honetan. Mundu mailako biztanleriaren %20-ak munduko biztanle guztien %80-ko aberastasunaren jabe dira. Adibide moduan esan Afrika Subsahariarrean ur ornikuntza biztanlegoaren %41-aren esku dagoela.



## 4. Zer ari da egiten?

### Mundu mailako zenbait adibide

 **Zuhaitz bat salbatu ezazu, basoa salbatu ezazu / Salvar un árbol, salvar el bosque.** 1997an Pacific Lumber izeneko zerrategia Californiako Humboldtteko sekuoia baso bat botatzen hasi zen. Julia Butterfly Hill, 23urteko neska, 1800 urte zituen sekuoia gainera igo zen eta 738 egun, 2 urte egin zituen bertan, zuhaitza bota ez zezaten protesta egiten. Basoko zuhaitzen botatze lanak geratu arazi zituen eta orduan, bi urte pasa ondoren, jeitsi zen zuhaitzaren gainetik. Hasiara batean neska gazte honek bere kasa antolatutako ekimen honetara jende gehiago inguratu zen denborarekin eta denbora horretan jende askoren laguntza jaso zuen. Albistea munduko komunikabide guztietara zabaldu zen eta salaketak eta basoaren eta zuhaitzen aldeko ekimenak irabazi egin zuen. Zerrategiak baso hartako zuhaitzak botatzeari utzi zion. Ekimen “txiki” hauek, petsona ezezagunek beraien kasa bultzatutako ekintzak oso baliagarriak izaten dira askotan. Arazoen berri ematen dute, gune asko hondamenditik ateratzen dituzte eta jendea animatu egiten dute horrelako ekimenean parte hartu edota horrelako ekimenak antolatzeko. (*El legado de Luna. Julia Butterfly Hill.* Ed. Suma de Letras, 2002.)

 **Zuhaitzen besarkada. / El abrazo a los árboles.** 1973an Himalayako herrixka batean emakume talde bat baso bateko zuhaitzen enborrei helduta geratu ziren zuhaitzak bota ez zitzaten salaketa gisa. Mundu mailan jende askok Himalaya inguruan egindakoa kopiau eta toki askotan zuhaitzen enborrei helduta arbolen eta basoen defentsan aritu ziren. Ekimen honen ondorioz “Chipko” (besarkada hinduz) mugimendua sortu zen. Mugimendu hau





basoak bere horretan mantentzearen alde eta Indiako baliabide naturalak mantentzearen alde aritu da lanean. 1987ko Nobel Sari Alternatiboa jaso zuen mugimenduak. (*Vivir ligeramente sobre la Tierra. Premios Nobel Alternativos. Integral*, 1992.)



**Plastikoari ez, esan iezaiozu. / Di no al plástico.** 2001ean, Otoynd, India hegoaldean, Supriya Sahu, administrazio publikoko langileak, plastikozko poltsak esku artetik desagertzeko kanpaina jarri zuen martxan. Zabortegetan plastikozko poltsa asko zegoen herriari oso itxura txarra ematen zion honek eta gainera animalia asko plastikoarekin itota hiltzen ziren bertara elikagai bila hurbiltzen zirenean. Bi modutara aritu zen lanean, batetik, funtzionaria izanik, plastikozko poltsak erabiltzen zituzten merkatariei isunak jartzen zizkien. Bestetik, eskoletan, elkarrekin, emakumeen artean eta gizarte zerbitzuetan plastikozko poltsen erabileraren aurkako informazio kanpainak antolatu zituen. Inguruko dendetan betiko telazko poltsak, paperezko poltsak eta landareen hostoez egindako poltsak erabiltzen hasi dira ([www.hindu.com/thehindu/mag/2002/05/19/stories/2002051900370400.htm](http://www.hindu.com/thehindu/mag/2002/05/19/stories/2002051900370400.htm)).



**Kontsumorako kooperatibak.** Geroz eta ugariagoak dira elikagai biologikoak ekoizleari zuzenean eta prezio merkeagoan erosteko taldeetan biltzen diren kooperatibak. Elikagai ekologikoak, ongari kimikorik erabili gabe eta genetikoki manipulatua izan gabe sortzen diren produktuak dira. Taldeetan bildutako kooperatibetako partaide hauek kantitate handia erosten die ekoizleari zuzenean. Bitartekaririk ez dagoenez eta kantitate handian erosten denez, oso prezio onean erosten dira. Ekoizleak gainera diru honekin bere langileen lan-baldintzak hobetu ditzazke. Honen adibide modura BAH taldeak daude (Bajo el Asfalto está la Huerta) Madrileko erkidegoan dabilten lanean ([www.bah.ourproject.org/](http://www.bah.ourproject.org/)).



**Elkartasunezko marea. / Marea de solidaridad.** 2002ko azaroan, “Pres-tige” itsasontziaren hodoratzearen ondorioz, ordura arte inoiz ezagutu ez zen elkartasunezko mugimendu handi bat sortu zen estatu espainiarrean. Estatu-ko toki guztietako milaka bolondres Galizara abiatu zen bertan petroleoz kutsatutako kostaldea garbitzera. Gobernua baino lehenago mugitu ziren herri-tarrak. “Nunca Más” gobernuz kanpoko erakundea garbiketa lanetan hasi zen gobernuak inongo konponbiderik eta ahaleginik egin aurretik. Gazteen pasibitate horrenbeste kritikatzeko den garaian, adierazgarria da herritarrek eta gazte askok egindako lana. “Nunca Más” elkarteari buruzko informazioa: [www.plataformanuncamais.org](http://www.plataformanuncamais.org).

## 5. Zuh zer egin dezakezu?

Ingurugiroaren hondamendiaren kontrako lana guztion erantzunkizuna da. Ez da gobernuen erantzunkizun soil. Lehenik eta behin gertuen dugun arazoetaz arduratu beharko gara eta honetz gain, mundu mailako ekimen unibertsaletan lagundu.

### ↔ Lanean hasteko zenbait ideia

- ↔ Zure auzoan, ikastetxean, zure inguruan, elkarte ekologistaren bat sortu dezakezu. Zure inguruan dauden arazoak aztertu eta ingurugiroaren aurkako eta bizi kalitatearen aurkako ekintzak salatu ditzazkezu.
- ↔ Dagoeneko ingurugiroaren alde lanean diharduen talderen bateko partaide egin zaitezke.
- ↔ Eztabaidatzeko kanpainaren bat antolatu dezakezu zure inguruan, ikastetxean, lanean, auzoan... Eztabaidagaiak modu askotakoak, zabalak izan daitezke, herrian etxeak eraiki ahal izateko bota behar duten basoaz hitz egin daiteke edota mundu mailan pairatzen ari garen aldaketa klimatikoaz.
- ↔ Energia kontsumoa murrizteko kanpaina egin dezakezu zure ikastetxean eta zure ikastetxea “Ecoescuelas” sarean sartzeko lana egin dezakezu.
- ↔ Gogoratu gainera, berrerabili, berziklatu, banatu eta erabiltzen dituzun produktuen bizi iraupena luzatu egin behar duzula.

## 6. Non informatu zaitezke lan egiteko?

- Ekologistak lanean. / Ecologistas en acción. Estatu mailan lan egiten duten elkarteen koordinakundea da. Hauen bitartez zure bizitokiaren inguruan lan horretan dabiltzan elkarteen berri izan dezakezu harremanetan jarri ahal izateko. Hauen foroetan sartu zaitezke, salaketa ekimenak burutu ditzazkezu edota kontsumo arduratsua defendatzen duten elkarteetan hasi zaitezke bolondres gisa lanean ([www.ecologistasenaccion.org](http://www.ecologistasenaccion.org))
- Greenpeace. Maila eta sona handiko salaketa kanpainak bideratzen dituen taldea da. Antolatzen dituzten ekimenek islada handia izaten dute mundu osoko komunikabideetan. Bolondres modura lan egin dezakezu antolatutako kanpaina desberdinetan ([www.greenpeace.org/espana/](http://www.greenpeace.org/espana/)).

- ➔ Ingurugiroaren hezkuntzarako Zentru Nazionala. / Centro Nacional de Educación Ambiental —CENEAM—. Valsainen, Segovian dago. Ingurugiroari buruzko dokumentazio zentroa dago bertan. Web orri interesgarri bat ere badu. Formakuntzan lan handia egiten duen elkarte da eta estatu mailan nahiz mundu mailan egiten diren ekimenen informazio iturri ere bada ([www.mma.es/educ/ceneam/index.htm](http://www.mma.es/educ/ceneam/index.htm)).

## 7. Gehiago jakiteko

- @ E. F. Schumacher. *Lo pequeño es hermoso*. Ed. Blume, 1978. Mugimendu ekologistaren klasiko bat da. 1973koa da, 20 hizkuntzetara dago itzulia. Adibide asko ematen ditu ingurugiro jasangarriaren aldeko ekimen txikiek herrialdeen aurrerakadan duten garrantzia azaltzeko. XX. mendeko bukaeran eragirik gehien izan duen liburuetako bat da.
- @ Zenbait egile. *Campañas en defensa del medio ambiente. Una guía para pasar a la acción*. Greenpeace España, 2005. Kanpainak sortzen ikasteko baliagarria, bertan jasotakoa tokian tokira eraman daiteke. Orria deskargatu daiteke: [www.greenpeace.org/espana/getinvolved/gu-as/pasar-a-la-acci-n](http://www.greenpeace.org/espana/getinvolved/gu-as/pasar-a-la-acci-n).
- @ *La degradación ambiental amenaza los objetivos del milenio*. Ingurugiroaren hondamenarekin herrialderik pobreenek biziko dituzten egoera larriari buruzko txostena da. [www.pobrezacero.org](http://www.pobrezacero.org).
- @ Ecologistas en Acción eta Greenpeace taldeetako gaiari buruzko dokumentuak.



# Zortzigarren HELBURUA

garapenerako  
elkartasun  
internazionala  
bultzatzea



Gure gizartearen irakaskuntza hauxe da: Pertsonaren bat bazterten dugunean pobretu egiten garen bitartean pertsona bat gureganatzen dugunean aberastu egiten garela. Gure besoek gure bizitzan zehar ikutuko duten pertsona guztiak ezagutu, ikutu eta izendatzeko ahalmena izango dugu? Gutako inork ez du bere gaizatasuna ezagutuko, aurretik besteen gizatasuna ezagutzen ez badu.

Carlos Fuentes









## 1. Aurkezpena

XXI. mendearen hasieran, gizarteak mundu mailako gosea epe laburrean konpondu ahal izateko adina baliabide ekonomiko eta teknologiko baduela bada-kigu. Aldi beran, gure gizarteak, mundu mailako pobrezia eta Hiesaren modu-ko gaixotasun larriak konpontzeko adina baliabide ere badu.

Milurtekorako helburuetako zortzigarrena, mundu mailako elartasun ekime-nak sortu eta bultzatzea da. Herrialde pobreei kanpo zerga barkatzea, gara-penerako laguntza ofiziala ematea, herrialde pobreen eta aberatsen arteko desberdintasunarekin bukatu ahal izateko komunikazio eta elkartasunezko ekimenak antolatzea eta planetako herrialderik pobreenek bizi duten emer-gentzia egoerei aurre egitea dira egin beharreko lanak.

## 2. Zertarako balio du garapenerako laguntzak? Garapenerako mundu mailako elkartasuna nola hobetu daiteke?

-  Garapenerako laguntza herri aberatsek soberan dituzten baliabideak herri pobreei ematea da. Modu honetara herri pobreen garapena eta bertako gizakien bizitza kalitatearen aurrerapena lortzen da.
-  Jakin badakigu gizarteak pobreziarekin bukatu ahal izateko nahikoa baliabide badituela. Baina herrialderik gehienek ez dute bere barne produktu gordinaren %0,7-a ere bideratzen herrialde pobreetara. Herrialde askok mundu mailan ezarria dagoen kantitate honen erdia edo erdia baino gutxiago bideratzen dute herri pobreetara.
-  Arazoa ez da baliabide arazoa bakarrik. Pobrezia askotan gerrateekin dago zuzenean lotuta. Gainera biztanleak miseria gorrian bizi diren herrialde askotako gobernuek dirutza handia erabiltzen dute gerrateetan arituko den ejerzittoa antolatzeko. Gerratean dauden herrietako diru laguntzak behar bezala bideratzea oso zaila da. Herrialde aberats askok gainera armak exportatzen dituzte herrialde pobre hauetara. Enpresa asko herrialde pobreetara exportatutako armen negozioari esker aberasten dira.



### 3. Zein egoeratan gaude?

#### ▲ Aurrerapenak

- ▲ Desberdintasunak egon badaudela jakiteak hauen aurka lan egiten lagutzen du. Azken urteetan desberdintasunaren aurkako kontzientzia handitu egin da mundu mailan. Honekin batera, liberalismo ekonomikoa indartzen ari da. Modu honetara pertsonen beharren gainetik enpresen irabaziak jartzen direlarik.
- ▲ 2000. urtetik hona, herri pobreen zorren barkamenean aurrerapen txiki batzuk eman dira. Munduko ekonomia kontrolatzen duten erakunde finantziariek, Nazioarteko Fondo Monetarioak eta Banku Mundialak badakite herri pobre askok epe motzean eta epe luzean ezinezkoa izango dutela zergen ordainketa egin ahal izatea.
- ▲ Estatu espainiarreko garapenerako laguntza ofizialak, la Ayuda Oficial de Desarrollo Española (AOD)-ek, 2003. urtetik 2004ra bitartean, gobernuan emandako alderdi politikoaren aldatzarekin batera, barne produktu gordinaren %0,23tik %0,31-ra handitzea lortu zuen. 2008. urterako %0,5-a lortzeko konpromezua dago sinatuta.

#### ▼ Alarmak


- ▼ Herrialde pobreak desabantailan daude mundu mailako merkatuan. Herri aberatsek beraien elikagai produktuak mugen-zergetatik babesten dituzten bitartean, herrialde pobreei inportaziora zabaltzea eskatzen zaie. Giza elkarteek eta mundu mailako elkarkidetzarako elkarteek justua ez den egoera honen salaketa egin izan dute eta egiten dute behin eta berriz.
- ▼ Munduan geroz eta diru gehiago bideratzen da gastu militarretara eta geroz eta eskasagoak dira mundu mailako elkartasun ekimenetara zuzendutako diru laguntzak. Paradoxa gertatzen da. Batetik gizakiok mundu mailako desberdintasuna ekiditeko beharra geroz eta kontzientzian barnerratuago dugu, baina bestetik, botere ekonomikoek agintzen dute eta hauek irabazi ekonomikoen menpe egiten dute lan. Hau horrela izanik, ulertu daiteke herrialde demokratiko askok, giza-eskubideen errespetuak indarrean dituzten herrialdeak, armen esportazioarekin jarraitzea. 2000 eta 2003 urteak bitartean gastu militarra 118.000

milioitan handitu zen mundu mailan. Dirutza hau giza laguntzara bideratu izan balitz, honek, pobrezia tasaren jeitsiera eta gosearen gutxitzea suposatzeaz gain, herri aberatsen barne sarrera gordinaren %0,7-a suposatuko luke, Europako batz bestekoa %0,35-ean zegoan 2003an. (Datu hauek Garapenerako Nazio Batuetako Mugarik Gabeko Arkitekturen programatik ateratakoak dira).

## 4. Zer ari da egiten?

### Mundu mailako zenbait adibide


 **Erropa garbia. / Ropa limpia.** Herrialde desberdinetako Gobernu kanpoko zenbait erakundek martxan jarritako kanpaina da. Mundu mailan lan egiten duten marka handiei (Adidas, Nike, Reebok, Ikea, Zara) presioa egiten diete beren langileen lan-baldintzak errespetatu daitezen eta bertako langileek lan-baldintza egokietan jardun daitezen lan egiten duten herrialdeetan. Langile hauek herrialde pobreetakoak izaten dira eta herrialde hauetan aritzen dira lanean. Askotan egiaztatu izan da enpresa hauetako langileak lan-baldintza penagarrietan aritzen direla lanean. Produktu hauek Europa, Estatu Batuetan eta Japonian saltzen dira. Marka batzuekin akordio batzuk sinatu izan dira, baina egin beharreko lana oraindik ere handia da. Estatu espainiarrean ONG SETEM gobernuz kanpoko erakundeak lan handia egin du langile hauen lan-baldintzen alde eta baita Alternativa Solidaria-Plenty- k ere ([www.ropalimpia.org](http://www.ropalimpia.org)).

 **Boliviako mehatzaritza ingurueta kultura bultzatzeko ekimena.** Boliviako mehatzagintza inguruak bizi duen pobrezia eta isolamendu egoerak maila guztietako laguntza behar du. Bertako langileen ekimenaren ondorioz mehategi ingurueta herrixketan liburutegiak sortu ziren. Liburutegi hauen bitartez inguru horretan irakurzaletasuna zabaldu nahi izan da. Langileei lan-baldintza duinen buruzko formazioa eskaintzen zaie. Mundu mailako elkarkidetzan, liburutegi sarea zabaltzen ari da. Liburutegi hauek gainera, kultur etxe moduan ere lan egiten dute. Informazio gehiago: ISCOD —UGT— Fundazioa. ([www.ugt.es/iscod](http://www.ugt.es/iscod))

 **“La Maison des Bateleurs” (Tronpetisten etxea).** “Solidarités Jeunes” Gazte Solidarioak”) elkarteak Frantziako Poiteau Charentesen bultzatutako ekimena da. Nekazal etxe batean mundu guztiko jendeak lan egiteko tailerrak





## mundua aldatu dezakegu



antolatuta dira, bertan parte hartzen duten munduko herrialde desberdinetako kideek lana egiteaz gain elkar bizitzen ikasi eta kultura desberdinak barnerratu ditzaten. Frantziako herrialde desberdinetako jendeaz gain mundu guztiko jendeak hartzen du parte tailerretan. Gizarte arazoak dituzten gazteekin lan handia egiten da bertan, baina garrantzitsua kultura desberdinetako jendearekin elkar bizitzen ikastea da. Artea asko lantzen da egitasmo honetan. Antzerkia, musika, pekusioa, sormena, ezagutza desberdinak batak besteari irakastea... lantzen dira. Lanerako tailer mota hauek gerraren aurka eta bakearen aldeko kultura bultzatzearen alde daude. [www.solidarites-jeunesses.org](http://www.solidarites-jeunesses.org). Lan tailerren informazio gehiago hemen bila dezakezu: "Servicio Civil Internacional ([www.ongsci.org](http://www.ongsci.org)).



 **Bakearen aldeko mundu mailako brigadak. / Brigadas Internacionales por la Paz.** Erakunde hau gerrateak dauden herrialdetan aritzen da lanean. Herrien arteko arazoak konpontzen adituak diren bitartekariak ditu erakundeak. Hala ere, batez ere, arazo armatua ematen den herrietan egiten dute lana bolondresen laguntzari esker. Bolondres hauek herrialdean bertan gertatzen ari denaren berri ematen dute. Guatemalako biztanleria indigenaren genozidio kasuan brigadistek eman zuten honen berri. Bolondres hauek bestalde, mehatxatuta dauden sindikalista edo apaizak babesten egiten dute lana. Estatu espainiarreko bolondresak, Nikaraguan, Guatemalan, Hondurasen, Chiapasen (Mexikon), Iraken, Timorren edota Indonesian aritu dira lan haue-tan urtetan ([www.peacebrigades.org](http://www.peacebrigades.org)).

 **Nire eskola eta mundua. / Mi Escuela y el Mundo.** Baloreetan hezteko eta garapenerako elkertasunezko erakundeen sentsibilizazio kanpaina bat da. Materiale didaktikoak eta arazoei buruz pentsa arazten duten materialak sortu eta banatzen dituzte. Estatu espainiarreko eta munduko kulturei buruzko informazioa eskaintzen du, tailerrak antolatzen dite eta elkertasunezko eskolen sarea bultzatzen du. ISCOD Hekuntza munduko langileen sindikatuak, biak UGT-koak, AECIren babesarekin bultzatutako ekimena da. "Mi Escuela y el Mundo" programak munduko bost kontinenteetako haurrak jartzen ditu harremanetan ([www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org)).



**Musika, explotazioaren eta heriotzaren aurka, Congoko Errepublika Demokratikoan / Música contra la explotación y la muerte en la República Democrática del Congo.** Murtzian eta Albaceten, UMOYA, Afrika beltzeko elkartasunezko komiteen federakuntzak bultzatuta, musika jaialdiak eta ekintza kulturalak antolatu izan dira eta honetaz gain, Domingo Pérez abeslariaren liburu-siskoa argitaratu da. Ekintza hauek guztiak, bertako lurren jabetza noren esku geratzen den eta coltana mineralaren ustakuntzarako jabetza noren esku geratzen den iskanbiletan lau milioi pertsona hil ondoren, heriotza guzti hauek salatzeke egin ziren. Coltana, zenbait arma egiteko eta telefono mugikorretan erabiltzen den minerala da. Inguru honetan coltana mehatagitik ateratzen lanean diharduten mehatzariek oso lan-baldintza penagarrietan egiten dute lana, esklabuen pare. Pertsona hauen lan-baldintzak ikusita telefono mugikorra aldatzeak zer pentsatua eman beharko liguke eta aldatu aurretik bitan pentsatu beharko genuke. Guk telefono mugikor berria ordaindu badezakegu ere, aldaketa honek, ingurugiroaren hondamendia ekartzeaz gain, gizaki askok lan-baldintza penagarrietan lanean aritzeak suposatzen duelako ([www.umoya.org](http://www.umoya.org), [albacete@umoya.org](mailto:albacete@umoya.org)).

## 5. Zuh zer egin dezakezu?




**Saiatu zaitetz arduraz kontsumitzen.** Herri garatuetako biztanleok mundua orekatu ahal izateko egin dezakegun garrantzitsuena gutxiago kontsumitzea da.



**Gutxiago kontsumitzeko ideia batzuk.** Trukatu ezazu erabilitako erropa. Begiratu ezazu erropen etiketatara eta zure herrialdean egindakoak, merkataritza justoan egindakoak edota ingurugirari kalet egiten ez dioten erropak erosi itzazu. Luzatu ezazu zure makinaren bizi iraupena, telefono mugikorrena eta baita dituzun gainontzeko makinena ere. Trukerako ekimenetan (*1. Helburua ikusi*) parte har ezazu. Erosi ezazu denda txikietan, garraio publikoa erabili ezazu eta uko egin iezaiozu beharrezkoa ez denean kotxean ibiltzeari.



**Mundu mailako eta zure inguruan antolatutako ekimenak ezagutu itzazu eta hauetan parte hartu ezazu.** Giza-eskubideen alde eta mundu mailako elkartasunezko ekimenen alde lan egiten duten erakundeetan parte hartu ezazu.



- ➡ **Zure herrian lan eginda mundu guztira iritsi daitezke zure salaketak eta laguntzak.** Zure auzoko immigranteentzat etxebizitza duina aldarrikatzu mundu mailako biztanleriaren alde lanean ari zara.

## 6. Non informatu zaitezke lan egiteko?

- ➡ Plataforma 2015 y más: [www.sinexcusas2015.org/sin\\_excusas2015/middleframe\\_files/plataforma.htm](http://www.sinexcusas2015.org/sin_excusas2015/middleframe_files/plataforma.htm) Hemen mundu mailako eta estatu espainiarreko pobrezia eta gosearen aurka lanean diharduten taldeen helbideak bilatuko dituzu. 14 elkartetan osatzen dute plataforma hau eta hauek kontsultatu ahal izateko helbide zuzenak seigarren atalean daude. Lehenengo helburuaz gehiago jakiteko Pobrezia Cero / Pobreza Cero kanpainaren web orria begiratu dezakezu: [www.pobrezacero.org](http://www.pobrezacero.org).
- ➡ Zure inguruan lanean diharduten eta gida honetan aipatutako gobernu kanpoko erakundeak eta elkartetan aritu zaitezke lanean. Ikaskide edo irakasleen bitartez era izan deakezu zure inguruan lanean diharduten elkarten berri.

## 7. Gehiago jakiteko

- @ *Plataforma 2015 y más. La palabra empeñada.* Informe 2005 sobre el cumplimiento de los Objetivos del Milenio (en los Libros de la Catarata y en [www.sinexcusas2015.org](http://www.sinexcusas2015.org)).
- @ Bakearen ikerkuntzarako zentroa / Centro de Investigación para la Paz [www.fuhem.es](http://www.fuhem.es) Bakearen alde kulturen arteko elkarkidetzarako eta hezkuntzaren bidez arazoak konpontzeko lan egiten duen zentroa da. Dokumentazio zentroa ere badu elkarteak eta hezitzaileentzat interes handikoa den argitalpenak ere baditu.
- @ Munduko Gizarte Foroa / Foro Social Mundial: [www.forumsocialmundial.org.br](http://www.forumsocialmundial.org.br) Mundu mailako gizarte foroei buruzko dokumentazioa eta 2006rako deialdia jasotzen dira hemen.
- @ Garapenerako OND koordinakundea / Coordinadora de OND de Desarrollo: Guía de recursos en internet para la educación para el desarrollo. CONGDE-ren barruan dauden elkarten materialak eta bizipenak jasotzen dira hemen ([www.congde.org/guia](http://www.congde.org/guia)).


# Milurtekorako helburuei buruzko informazio gehiago

Milurtekorako helburuen inguruan egiten ari dena ezagutu dezakezu hemen, horretarako zenbait liburu eta interneteko lotura azalduko dizkizugu. Gida honetan irakurritakoaz gain, datu gehiago bila ditzazkezu liburu eta internet orri hauetan. Aldi berean interesgarriak izan daitezkeen adibide eta jokamoldeak edo jarrerak azaltzen dira.

## Argitalpenak eta dokumentuak

- Nazio Batuak: *Milurtekorako deklarazioa*. 2000 urteko iraila. Milurtekorako helburuak jasotzen dituen argitalpena da. Web orrian ere kontsultagarri dago.
- Nazio Batuen Garapenerako Programa / Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo: *Los Objetivos de Desarrollo del Milenio: Progresos, reveses y desafíos —2005—*. Urteko gizar garapenari buruzko txostenean jasotakoak azaltzen ditu. Oso modu argian dago idatzia, grafiko askorekin egindako argitalpena: [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org).
- Nazio Batuen Garapenerako Programa / Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo: *Informes sobre desarrollo humano* ([www.undp.org](http://www.undp.org)). Urteroko txostenak dira, gizakiak mundu mailan daraman garapenari buruzko datuak jasotzen dira hemen.
- Pablo J. Martínez Osés: *Objetivos del Milenio. ¿Se puede acabar con la pobreza?* Madrid, 2005, PPC. Milurtekorako helburu bakoitzaren azterketa sakona da eta helburu bakoitza 2005ean zertan zegoen, betetzen ote zen edo betetze bidean zegoen.
- Hegoa: *Elkaratasuna lantzeko baliabideen gida / Guía de recursos para trabajar la solidaridad*. Hezkuntza, nazioarteko elkarlaguntza, generoen arteko desberdintasuna, bakea, ingurugiroa, merkataritza justoa edota giza eskubideei buruzko baliabideen gida interesgarria da. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005 ([www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)).
- *Plataforma 2015 y más. La palabra empeñada*. Informe 2005 sobre el cumplimiento de los Objetivos del Milenio. Los libros de la Catarata. Interneten kontsultagarri. [www.sinexcusas2015.org](http://www.sinexcusas2015.org). Milurtekoaren helburuei buruzko informazioa





jasotzen duten artikulua eta helburu hauek planteatu zirenetik bost urte pasa ondoren hauek bete ote diren eta zein egoeratan dauden azaltzen duen txostena.

- Jeremy Seabrook: *El mundo pobre*. Intermon-Oxfam, 2004. Pobrezia oso modu garbian aztertzen du. Munduaren hegoaldeko eta iparraldeko biztanleen istorioak kontatzen ditu.
- *Documentación Social* aldizkaria. 136. Zenbakia. Monográfico “Los Objetivos de Desarrollo del Milenio”. 2005eko urtarrila-martxo. Artikuluak eta bibliografia osoa jasotzen ditu.
- Vicente Romero: *Palabras que se llevó el viento. Historias mínimas*. Madrid, Ed. Espejo de Tinta, 2005. RNEko kazetari honek ahaztuta dauden munduko arazo askoren testigantza eta munduan oso egoera txarrean bizi den jendearen alde lan egiten duen pertsona ezezagun askoren, heroi askoren testigantzak ere jasotzen ditu.
- Hernán Zin: *La libertad del compromiso*. Plaza y Janés, Barcelona, 2005. Idazlea, kazetari argentinarra da. Munduko pobreenen alde lan egiten duen ezezagun askoren istorioak kontatzen ditu. Oso liburu irakurterreza da eta lanean aritzeko animoak ematen dituena.
- *Diagonal* (Informazio kritikoa egiten duen hamabostekaria) Estatu espainiarrean eta mundu mailan giza eskubideen alde lanean diharduten elkarte eta erakunde- en berri ematen duen argitalpena da ([www.diagonalperiodico.net](http://www.diagonalperiodico.net)).

## Loturak

- [www.aulaintercultural.org](http://www.aulaintercultural.org). Hezkuntza baliabideei buruzko gune birtuala da. Formakuntza ekimenak eta parte hartze ekimenak jasotzen dira hemen. UGTko ISCOD Fundazioak eta Hezkuntzako Langileen Federazioak bultzatutako ekimena da.
- [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org). “Nire eskola eta mundua” / “Mi Escuela y el Mundo” (ISCOD-FETE, UGT) elkarteek bultzatutako kanpainaren web orria da. Eskolan eklartasuna lantzeko baliabide didaktikoak eskaintzeaz gain, mundu guztiko ikastetxe, irakasle eta ikasleak harremanetan jartzeko gunea izan nahi du. Milurtekorako helburuei buruzko oinarritzko informaziorako dokumentuak aurki daitezke hemen.
- [www.sinexcusas2015.org](http://www.sinexcusas2015.org). Nazio Batuen Milurtekorako helburuen kanpainaren web orria da. Pobrezia Zero / Pobreza Cero kanpainaren berri, Plataforma 2015



## mundua aldatu dezakegu

y más mugimenduaren berri eta Milurtekorako helburuak betetzeko antolatutako zenbait ekimenen berri jasotzen dira bertan.

- **[www.enredate.org](http://www.enredate.org)**. UNICEFen orria da. Milurtekorako kanpainari buruzko informazioa jasotzen du orri honek. Gazte etahaurrekin lan egiteko proposamenak eta material didaktikoak eskaintzen ditu.
- **[www.fuhem.es/portal/areas/paz](http://www.fuhem.es/portal/areas/paz)**. Bakearen Ikerkuntza Zentruko, (CIP-FUHEM) eko, orria da Mundu mailako bakearen alde aritzeko materiale didaktikoak, artikuloak, azterketak eta txostenak jasotzen ditu.



## Zure ekarpenak (edo “Zure esperientzia”)

¿Milurtekorako helburuekin zer ikusirik izan eta zuk ezagutzen duzun edota zuk parte hartu duzun ekimenen baten berri eman nahi diguzu?

Zure bizitokiaren inguruko esperietziak jasotzeko interes handia dugu. Esperentzia hauen berri ekimenak burutzeko gogoia duten elkarte eta pertsoneri eman nahi dizkiegu beraien lana bideratzeko ideia moduan. Zuen ikastetxean, institutuan, lantokian, elkartean, zuen inguruko edozein tokitan antolatutako edozein ekimenen berri izan nahi dugu. Zuek emandako informazioa web orri honetan jasoko genuke gai hauetan interesa dutenek informazioa eskuragarri izan dezaten: [www.educacionenvalores.org](http://www.educacionenvalores.org). Posible balitz gida honen ondorengo argitalpenetan ere zuen ekimenen berri emango genuke.

Eskerrik asko alde zurretik zure laguntzagatik.





mundua aldatu dezakegu

Esperientziaren izena \_\_\_\_\_

Ekimena egin den/egin zen tokia \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Ekimena bideratu duten/zuten elkarte edo erakundeen izenak \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Nori dago/zegoen zuzendua ekimena \_\_\_\_\_

Deskribatu ezazu modu laburrean ekimenak zertan datzan/zetzan \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Ekimena burutu ondorengo balorapena \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Esperientzia non burutu da zein ikastetxetan, auzoan, herrian edo hirian burutu den (zein ondorio uste duzu izan duela esperientzia honek) \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Harremanetan jartzeko helbidea helbide elektronikoa edo posta helbidea, inork zuekin harremanetan jarri nahiko balu \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_